

BERRIGARA

132. zenbakia

JARDUN ELKARTEA Bergara


1993, abenduak 23

HERRIKO
ORDEZKARIAK
MINTZO:
VICTORIOANO
GALLASTEGI
(EAJ)

GISASOLA
BURDINAKI
DENDAK
ESKAPARATE
LEHIAKETA
IRABAZI DU

KIROLAK

HARRIAK
JASOTZEN
IKASTEKO
ESKOLA
BERGARAN



MINIA
NORMALA
LUJOZKOA
LUJO HAUNDIKOA

BARRENKALE, 35
☎ 76 58 05

KIÑU
ARCO
IRIS
DE KODAK


ZORIONAK

2 X 1



12 + 12
ARGAZKI
963 pzta.
24 + 24
ARGAZKI
1.551 pzta.
36 + 36
ARGAZKI
2.139 pzta.

+ BEZ



BERGARAKO

OSASUN Gida

ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak). ☎ 76 43 29
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) - Irizar baserria ANTZUOLA. ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 90 81 09 30 - Koldo Eleizalde 28. ☎ 76 27 97

ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo 4 1.B. ☎ 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN Victor - Oxirondo 4 1.B. ☎ 76 32 06

DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre 1, behea. ☎ 76 27 95
- GOROSABEL J. Alberto - Fraizskozuri 5, behea. ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale 1, 1.C. ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi 18, behea ezk. ☎ 76 07 66
- MARMOL Pablo - Simon Arrieta 3. 2.B. ☎ 76 38 54

MASAILARIAK:

- AZPEITIA Iruñe - Telesforo Aranzadi 1, 2. ☎ 76 14 08
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain 5 2. E. ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain 3, behea. ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka 7, 3. A. ☎ 76 51 18

MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain 3, 1.B. ☎ 76 37 50

PEDAGOGOAK:

- IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia...) - Simon Arrieta, 3 2.E. ☎ 76 26 42

PODOLOGOAK:

- ALTUBE Edurne - Simon Arrieta 2. ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak z/g. ☎ 76 41 32

PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin plaza 2, 1. ezk. ☎ 76 26 64

PSIKOLOGOAK:

- PSIKOLOGIA Gabinetea (Logopedia, foniatría) - Herri Lagunak z/g. ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (76 14 80). ☎ 76 53 13
- ZUBILLAGA Marisa (Psikologo klinikoa). ☎ 76 30 76

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara. ☎ 76 08 19

Berrigara

Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala.

Zuzendaria:

Gorka Elorza.

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkoroberezibar.

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Eburne
Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña eta Alex Labaien.

Kolaboratzaileak: Jose Angel
Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
Angel Elkoroberezibar, Juan
Martin Elexpuru, Josu Oregi,
Maripi Laskurain, Nerea Alzelai,
Ainhoa Lete, Jon Ander Bengoa,
Mikel Lizarralde, Monika
Belastegi, Aitziber Aretxaga,
Ainhoa Bikuña, Asier
Madinabeitia, Josune Iñarra eta
Ane Miren Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kiñu.

Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.500 ale.

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta eritzien erantzunkizunik.

PROTAGONISTAK



Gabon kantak ent-
zutuko aukera izango
dugu etxe guztietako ata-
ritan ostiral goizean. Asp-
aldiko ohiturari eutsiz,
ume eta zahar, gazte eta
heldu, ahots onak eta kas-
karragoak, guztiak kan-
tuan aterako dira umo-
retsu. Aitzakiak ere guz-
tietakoak izango dira aur-
ten ere: ikas bidaien alde,

urteko kintoak (aurten
1975.ekoak), presoan al-
de, talde kultural ezber-
dinak ere bai... edota,
gaztetxoek bezala, so-
sa batzuk ateratzeko. E-
san bezala, goizean goi-
zetik kantuan eta pentsa
daiteke afaltzera joan
aurretik Alai taldeak ere
Gabonetarako giroa
pizten izango dela.

Gabon kantak herriko kale eta txoko guztietara helduko dira

ITURRI ONETIK

"Txinoa" Bergaran

Txino Jatetxe bat izan dezakegu laistèr gure herrian.
Badirudi, honelako jatetxeen kate batek Udalar-
i eskakizuna egin diola jatetxe bat gure herrian jarri
ahal izateko eta Udalak, baiezkoa eman diola,
honelako lokal batek bete behar dituen baldintza
guztiak bete ezker. Lokala jartzekotan, seguraski
lehen Transportes Guipuzcoana (Tejidos
Fernandez en atzekaldean) zegoen lekuan jarriko da.
Euskal sukaldaritzari kompetentzia Asiatic datorkio.

ESAN DUTE

"Askotan neure buruari
galdetzen diot ez ote
den kazetarien artean
politikari frustratu asko
egongo"

IÑIGO URRUTIA

Kazetaria

ETB

"Ez da berdina kazetari
bat mozkortzea edo
bere emaztea jipoitzea
edo politiko batek
egitea, politikoei
erantzunkizun bat
dutelako legeak egiten
dituzten momentutik"

MARTIN GARITANO

Kazetaria

ETB

"Gure artean
pribatutasunaren muga
aldatu egiten da.
Pribatutasun gutxi du
personaje publiko
edozeinek, nahiz
kazetari, kantari edota
politikaria izan"


ENEKO OREGI

Politikaria

ETB



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jauriaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

HARATEGIA - URDAITEGIA

Sebastian Imaz

Bildotsa, txahala eta
oilazkoak

Harane Erreka, 1
76 32 67 BERGARA

Bergarako Udala eta EGIN egunkaria

Euskadin bizi gara, eta denok ez bada ere herriaren gehiengoak onartutako sistema politiko batean. Hala ere, bada gutxiengo bat, sistema ez onartzeaz gain berak eskaintzen dizkigun eskubideez eta askatasunaz baliatuz sistema bera apurtzen saiatzen ari dena. Gutxiengo hori, Euskal Herriaren Askapenaren aldeko Mugimendua (MLNV) bezala bere burua bataiatu duena, Herri Batasunaren bidez aurkeztu ohi da Hego Euskal Herriko hauteskundeetara.

Hego Euskal Herrian 2.100.000 pertsona gara botorako eskubidearekin; HBk 206.000 boto jaso zituen azken hauteskundeetan, hau da, emandako botoen % 13,6a. Beste alderdi politiko guztiok onartzen ditugu sistema honen arauak, eta ikusten denez, Euskadiko gehiengoak gure alde egin du.

Sistema hankaz gora bota nahi duten horiek ez dira saiatzen hau botoen bidez lortzen (ez daukate indarrik eta), baizik eta ETaren inguruko indarkeriaren bidez, ikara sortu eta beren ideiak inposatuz.

"MLNV" delako horrek argi eta garbi bultzatzen ditu ETaren iritziak. EGIN ere mugimendu horren partaide da eta gutxiengo horren ideiak inposatzen saiatzen da. Horretarako, gezurrak, irainak, gaizki-esanak eta zurrumurru eta informazio tententziosoak zabaltzen ditu euskaldunon gehiengoak onartzen ditugun pertsona eta erakundeen kontra. Beharbada, ez da legez kanpokoa izango, baina argi dago pertsonak aurrean eramaten dituela eta gutariko edonor izan daitekeela hurrengoak. Hori dela eta, ez diogu EGINi gurekin jolas egiten lagako, ez diogu inolaz ere lagunduko. Salaketak Epaitegietan aurkeztu behar dira,

eta ez defentsarako aukerarik eskaintzen ez duen komunikabide baten salatu, epaitu eta kondenatu. Hori deitzen zaio "calumnia que algo queda".

Bergarako gobernu-taldeko kideok herriak aukeratuak gara bere alde lan egiteko, eta horretan saiatzen gara. Batzuetan, beharbada, oso popularrak ez diren erabaki batzuk hartuko ditugu, baina gure eginbeharra ez da "popularrak" izatea, gure herriaren interesen alde ahal den eta ondoen lan egitea baizik. Norbaiten iritziz, oraingo hau edo beste edozein erabaki legearen kontrakoa baldin bada, badauzka bere esku hori salatzeko behar diren bideak.

Bergarako Udaleko Gobernu Batzordea

Aupa Huajoloteak!!

Berrigararen azken alean irakurri nuen gauzatxo bat ez zitzaidan ezer gustatu. Cojon Prieto Azabatxe y los Huajolotes taldeko batzuk Bergarako Gaztetxearen alde egin zen herri bazkarira etorri zireneko kontua da. Jendearen aurrean ondo geratu nahi baina, Huajoloteak berde-berde uztea da testuaren helburua.

Adibidez: "Ez dakigu Gaztetxeok antolatuta zuten herri bazkarira ala tabernatik taberna mozkor-mozkor eginda ibiltzeko hurbildu zaizkigun". Esaldi hori oso latza da. Ongi baino hobeto jakinda Huajoloteak Gaztetxearen aldeko herri bazkarira gonbidatuta etorri zirela, animazio pixka bat jartzekotan, jai giroa. Horrek ez du esan nahi mozkortuta ibiltzera eta eurak (batez ere) ondo pasatzera etorri zirenik. Ze, Huajoloteak beti umore onarekin dabilta. Edo beste hau: "Astelehenean, potro estu, ai barkatu!!", Kojon Prieto eta Huajolote petral samarrak herrian izan genituen" esaldi

hau idaztean, mila puntu galtzen ditu Berrigarak.

Gaztetxearen alde zerbait egin behar delako etorri ziren. Abesten ibili zirelako eta ondo pasa zutelako, mozkortuta egon behar al zuten? Hori bai dela lotsagarria. Horrela dela pentsatzen duenak ez dauka kapazidaderik edateke ondo pasatzeko eta gutxiago beste batzuk animatzeko. Gainera hori denok egiten dugun gauza bat da. Zer gertatzen da San Martzial egunean?

Ni ere Huajolota bat naiz eta badakit zein mudutan dabizen. Niri festibal bat amaitu eta askotan gertatu zait bateron batetek esatea: "Aizu! mexikana, mozkor ederra daukazu, e?" Eta bera, izugarrizko mozkorrarekin. Hainbeste inuzente dago munduan... hitzegin-hitzegiteagatik egiten duten horietakoa.

Herri bazkarian parte hartu zuten guztiak ondo pasa zuten. Orain hitzegin eta kritikatu baina, zergatik? ez zenutelako bertan parte hartu, Gaztetxearen aldekoa zelako. Egun hortan Bergaran ezin egoteaz pena galanta daukat. Baina argi daukat hemen banengoen juerga hobeagoa izango zela eta kritika oraindik lotsagarriagoa.

Leire Ibarzabal

Leireri erantzuna

Huajoloteak berde-berde jartzea ez zen gure asmoa izan. Hala ere, onartzen dugu, arinkeriaz jokatu genuela notizia erredaktatzerakoan. Norbait minduta sentitu bada barkamenak eskatzen dizkiogu, bereziki Leire Ibarzabali. Hurrengoan kontu gehiagoz jokatuko dugu.

BERRIGARA

Tiira ba!



Josu Okina

Sukaldaritza ikastaroa

JARDUN Elkarteak sukaldaritza ikastaroa iragarri du Gabonetarako, abenduaren 27tik 31era bitartean. Matrikularen prezioa 2.000 pta.koa da bazkidentzat eta 2.500 JARDUNeko bazkide ez direnentzat. Interesatuak JARDUNera (Masterreka 13) jo dezakete.

Amodiozko gutunak

JARDUN Elkarteak antolatutako Amodiozko Gutunen II. Berrigara Lehiaketara lanak entregatzeko epea urtarrilaren 17an bukatuko da. Lanak bi orrialde baino gehiagokoak ezin dira izan eta eskuz zein makinaz idatzita bidali daitezke. Sari banaketa otsailaren 14an egingo da.

1994.eko Aratuzte kartela*Irabazleak 50.000 pezetako saria eskuratuko du*

Udaleko Jai Batzordeak Aratuztetako programaren azalerako kartel lehiaketa antolatu du. Lehiaketa honetan Bergarako edozein lagunek har dezake parte eta lanak entregatzeko orduan honako baldintza hauek bete beharko dira: kartelaren neurria 50 x 35 zm.koa izango da, kolore eta teknika libreak erabili ahal izango dira eta aurkeztutako lan guztiek "Bergarako Aratuzteak, 1994" testua eraman beharko dute. Irabazleak 50.000 pta.ko saria eskuratuko du (saria eman gabe ere gelditu daiteke) eta saritutako kartela Udalaren esku geldituko da kaleratzeko eskubidearekin.

Jai-giroa

Lanak entregatzeko epea urtarrilaren 17an bukatuko da. Egilearen nortasuna azaldu gabe, kartelaren atzekaldean



Aloña Altunaren kartel honek irabazi zuen iaz.

ezizen bat jarri beharko da eta sobre itxi batetan ezizena bera kanpoaldean eta egilearen datuak sobrearen barruan azalduko dira.

Epaimahaia Jai Batzordeak izendatuko du eta bertan, Kultur Talde, Jai eta Gazteria Batzordeko

ez gain, kuadriletako bi lagun izango dira epaimahaikide. Epaimahaia lanen jai giroa kontutan hartuko du irabazlea aukeratzekoan. Azken edizioetako irabazleak Dani Laskurain (1992) eta Aloña Altuna (1993) izan dira.

**LONBIDE
OINETAKOAK****Bidekurutzeta, 5****☎ 76 10 57****BERGARA****BERGARESA
MARMOLERIA****PEDRO SALEGI OSA**

Sukalde eta bainu enzimerak

Uriarte, 8 ☎ 76 11 99 / 76 14 27

Faxa: 76 04 77 BERGARA

**SURPE
Taberna**Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA**AGENTZIA:
J. ELKORO**Ibargarai 2, behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH



UNIBER

HISPANA

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

BEDELKAR

BERGARAKO DENDARIEN ELKARTEA

"Elkartearen berri ematearekin batera, lehen mezua geure bezeroentzat izatea nahi dugu: Gabon hauetan zoriontsuak izan zaitezte eta pakea izan dezazuela".

KIROLAK

- Bolintxo
- Jauja
- Enaitz
- Aisor

FERRETERIAK

- Gaztelu
- Gisasola
- Mujika ferreteria
- Ardatza Brikolaketa

JANTZI ETA OIHAL DENDAK

- Gracian Agirre Mertzeria
- Igarza Artileak
- Edurne Mertzeria
- Gantxegi Mertzeria
- Bergara Piel
- Lide
- Aroa
- Juana Elgetarra
- Zubikua
- Phildar
- Pingouin
- Mujika jantzydenda
- Egizabal
- Siaska
- Laket
- Aranzabal
- Artazi
- Maher
- Ezpeleta Etxea
- Subijai
- Edel

- Portu

- Prakak
- Oihal
- Gallastegi
- Zatoia
- Urkiola
- Yazki
- Yazki Gazte
- Mirari Mertzeria
- Ugarte Mertzeria
- Nerea Lentzeria
- Ugalde Etxea
- Itziar Mertzeria
- Anezka
- Agirre

HARATEGIAK

- J.M Zurutuza
- Igarza
- S. Imaz
- J.L Leturia
- Urzelai
- L.M Rezola
- Lazpiur
- J.M Leturia

ELEKTRODOMESTIKOAK

- Biltoki
- Herran Etxea
- Radio Bergara
- Santos RTV
- Telkar
- Zaiazko

ALTZARIAK

- Biltoki
- Edertu
- Guridi
- Lizar
- Rementeria

SUKALDEKO ALTZARIAK

- Biltoki
- Herran Etxea
- Haltzari
- Jakina

JANARIDENDAK

- Laskurain
- Txukun
- Izadi
- Erosle Mazorriaga
- Ana Mari

OINETAKOAK ETA BOLTSAK

- Lazkano
- Lonbide
- Puxkin
- Aldasoro
- Agirrebeña
- Retegi
- Garnish

PERFUMERIAK

- Egiluz
- Alga
- Igaro

- Ugari
- Camacho

PAPER ETA LIBURUDENDAK

- Ipuin
- Marcó
- Idatzi

BAZARRAK

- Carmen Garate

ERLOJUDENDAK, BITXITEGIAK, OPTIKAK, ARGAZKI ETA FOTOKOPIADENDAK

- Etxeberria
- Arantxa
- Irudi
- Gantxegi
- Ainhoa
- Larrañaga Optika
- Manso
- Argazki
- Kiñu
- Foto Sistema
- Elkar Fotokopiak

ARRAINDEGIAK

- Kabutzia
- Primi

LORAK

- Ninika



Gotzon Iparragirre izango da Idolaz, Antzuolako euskara elkarteko presidentea.

Idolazen aurkezpena ostegunean

Orainarteko Euskara Taldea izan dena Elkarte bihurtuko da

Ostegunean, hilak 30, Antzuolan euskara indartzeko lanean diharduen Idolaz taldearen sorrera batzarra egingo da 19.30etan Antzuolako zine-aretoan. Euskararen aldeko talde hau euskararekin zerikusia duten arlo guztietan lan egiteko helburuarekin sortu da. Elkartearen bultzatzaileen hitzetan, *"berri mailan pisu eta legitimidade baundiagoa lortuko dugu horrela. Dagoeneko badira bi azpi-talde elkartearen barruan: ekintza puntualetaz arduratzen dena batetik*

eta Antzuolako euskara egiten diren akatsak aztertzen dibarduena bestetik. Hori kordinatzeko Zuzendaritza Batzordea eratuko da".

Aurkezpen aurreko egunak pizteko, Idolazek hainbat ekitaldi iragarri ditu. Osteguneko aurkezpenean, besteak beste, Roke Iñarra Antzuolako alkatea, Idolazeko partaideak eta Jose Angel Mikeo DEBAGUNE elkarteko presidentea izango dira. Bazkide egiteko kuotak, 3.000 pta. langileentzat eta 500 ikasle eta langabetuentzat.

Sutea Zubietan

Aurreko ostiralean sute bat izan zen Zubieta 1.eko 2. pisuan. Zubillagako suhiltzaileak ere etorri behar izan ziren manta elektriko baten eraginez sortutako sua amatatzera. Ez zen kalte larrik izan.

Alkatearen agurra

Victoriano Gallastegi alkateak Eguberri eta Urteberri on zoriontsuak opa nahi dizkie herritar guztiei

Jubilatuak eta Udal Liburutegia

Jubilatuen Elkarte itxita izango da abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean. Abenduaren 24an eta 31n, berriz, arratsaldeko 7etan itxiko da. Bestalde Udal Liburutegia urtarrilaren 10era arte goizez bakarrik izango da zabalik, 8etatik ordubatera.

Berrigara oporretan

Berrigarak oporrak hartuko ditu Gabonetan. Hurrengo alea urtarrilaren 14an helduko zaizue. Bien bitartean, Eguberri eta Urteberri on opa dizuegu Berrigara egiten dugun guztiok.

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

GISASOLA

BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

Pedro Deuna 8, Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

FANCY

GAZTEEN MODA!

Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

LARRAÑAGA

eta ZUBIA

Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

**Guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da,
profesionaltasun garbiko
bidean.**



Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpresa-
gintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela.
Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun -eta
aholkamendu- maila.

Gazteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak
kontu korrontean eta ohizko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.

Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun gar-
biko bidean.

Maltzaga Urbinaren aldeko Plataforma

Hainbat bergarar bailara mailan eratu den ekimenean

Deba bailarako haibat pertsona Maltzaga-Urbina bidez zatia bultzatzeko elkartu dira. Gure herrian 8 pertsona daude plataforma herritarraren barruan.

Helburua, Maltzaga-Urbina arteko bidea bultzatzea da. Herrian plataformaren kideak diren Juan Ramon Ugalde eta Juan Mari Otaegirekin hitz egin dugu. Beraiek adierazi digutenez "Maltzaga-Urbinaren garrantzia hiru mailatan ikusten dugu. Lehen mailan, bigarren mailan, hirugarren mailan eta azkenik Euskadi mailan. Garbi dago European garrantzia Mediterraneoko ardatzari ematen zaiola, eta guk ikusten dugu Paris-Madril-Lisboa eja ere garrantzitsua dela. Baina hor arrisku bat dago, orain Somporten tunel berri bat egin nahi dute. Horrek Paris-Burdeos-Zaragoza-Madril ejearen garapena ekarriko luke eta gu baztertuta geldituko gineteke".

Bailarako garapen industrialarentzako ezinbestekoa dela ere azpimarratu dute. Abiadura handiko bide hau egiteko

asmoa 70eko hamarkadatik dator eta Ugaldek adierazi digunez "bailarako alderdi politiko, erakunde eta elkarte ezberdinak bide honen eraikuntzaren alde agertu dira. Baina, argi gera bedi gure plataforma irekia eta inpendientea dela".

Maltzaga-Urbina abiadura handiko bidearen alde dago Plataforma, baina bera egiteko eritzi ezberdinak daude. Alde batetik autopista nahi dutenak daude eta bestetik autobidea, horri buruz hurrengo adierazi digu Otaegik "guretzat hori erabakitzeko epea ez da heldu oraindik. Ez daki-

gu hori gure helburua den, hor daude IGPak (interbentzio gune partehartzaileak) eta bertan era guztietako ekarpenak izango dira. Dena den guk IGPeetan irtengo den erabakia unartuko genduke, binkulatiboa ez izan arren.

Gure helburu nagusia korredorea egitearen garrantzia adieraztea da".

Maltzaga-Urbinak Euskadi eta Bailarari ekarriko dizkion gauza onei buruz hitz egin dugu, baina Bergarari begira ze suposatuko lukeen galdetu diegu. "Bergaran %80a industrietatik bizi da eta guretzat herriak obitura

industrialia du eta Bergarako industriarentzat zeharo onuragarria izango litzateke. Kontutan izan industriak kartzeko herriak dituen komunikabide sareak garrantzitsuak direla industria garatzeko".

Maltzaga-Urbina bultzatu beharrean, A8-N1a bultzatzearen alde agertu diren iritziei buruz zera dio Ugaldek: "Horrek ez du gure arazoa konpontzen. Lehenik hori ez da abiadura handiko errepidea izango, beti berri ondotik doa eta. Halaber, Etxegarateko mendateak oztopo izugarria suposatzen du".



Juan Ramon Ugalde eta Juan Mari Otaegi, Maltzaga-Urbina errepidearen aldeko plataformako kideak.

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariunma

Barrenkale 35, Tfnoa: 76 17 27

"Oposizioaren proposamenak ongi-etorriak dira. Positiboki lan egiten badu, guztientzat ona da"


Victoriano Gallastegi EAJko ordezkariarekin emango diogu amaiera lau astetan jarraian egin ditugun elkarriketa saioei. Udalean ordezkaturik dauden lau alderdietatik hiruk dagoeneko azaldu dituzte euren iritzia beren bozeramaleen bitartez. Oraingo honetan alkateak du hitza.

- Aurreko asteetan oposizioak, ez dela kontutan hartua izaten salatu du...

- Oposizioaren parte hartzea oso efektiboa izan daiteke. Komisioetan egiten diren proposamen gehienak Gobernu Batzordeak onartu egiten ditu. Beraz, oposizioaren aldetik komisio horietan parte hartzeko borondatea badago, kontutan hartuko zaio.

- Oposizioaren lan aktiboa bultzatzen da?

- Oposizioak komisio guztietan parte hartzeko eskubidea du eta egun baten bakarrik kointziditzen dute Gobernazio eta Hazienda batzordeak. Guztiek parte har dezakete bertan. Ni goian aipatutako Hazienda Batzordearen buru naiz eta besteen komisioen berri jasotzen dut, ez daukat guztietara joan beharrik, Jose Luis Garitanok (EA)



"Gehiengo absolutoak negatiboak izan daitezke gobernatzeko"

Victoriano GALLASTEGI EAJ

aipatzen duen moduan. Aurreko legislaturan geu geunden oposizioan eta aktiboki egiten genuen lan. Gure jarrerak beti azaltzen genituen, nahiz eta askotan onartu ez.

- Udal Gobernuak ez da oso egonkorra? PSE-EE ez dago alienatuegia EAJrekin?

- EAri Gobernuan parte hartzeko proposamena egin genion baina alkatezta eskatu ziguten. Beraiek ez zuten Gobernuan

sartu nahi izan, eta gure asmoa ez da izan beraiek baztertzea. Eta HBrekiko jarrera Gobernuak eratzeko orduan egindako aktan jasotzen da.

- Beti ados egon zarete EAJ eta PSE-EE...

- Gehiengo izateak ez du esan nahi guztia betetzen dela. Puntu bat argitu nahi dut: Elkorok, alkate zenean, Gobernuan sartzea proposatu zigun eta ados geunden, aktuaziorako dokumentu publiko

bat gertatzearen baldintzapean. Ez zen onartu eta ez ginen sartzeko prest agertu.

- Zein da oposizioekin duzuen harremana?

- Oposizioak positiboki egiten badu lan, guztientzat da ona. Gehiengo absolutoak negatiboak izan daitezke eta beren propuestak ongi-etorriak dira.

- Merkatuaren gaira pasatuz, nola daude negozioak?

- Udalaren asmoa urtarriletik aurrera irtenbidea topatzea izango da. Merkatua 180 milioi inguruko kostuarekin adjudikatu zen eta postu bakoitzaren kostua 7 milioitik gorakoa irtetzen da. Udalak konstrukzio horren zati bat asumitu zuen (% 39,9 Bergarako udal ondarea litzateke). Guzti hau eta zenbait partida deduzituz 4.700.000 pta.tan geratzen da postu bakoitza. Azkenean 4 milioira jeitsi genuen. Garitanok udal arkitektoak garajeen desagertzea jakin behar zuela adierazi zuen baina EAK eta HBK onartutako proiektuak ez zuen garajerik; Pleno bategan Elkorok merkatua garajerik gabe egiten ari zela eta ez zela proiektuari egokitzen adierazi zuen. Hirigintza bulegoetatik pasa eta orduan konturatu zen garajerik ez zegoela. Nik ez nuen guztia aldatu, Garitanok aipatzen duen bezala. Forjado desmontableak postuetarako pasoa ga-

lerazten zuen eta kentzea onartu zen aho batez, geratzen den superfiziea ez baita baserriarrak eta posturik ez duten gainontzeko saltzaileak kokatzeko behar bestekoa. Beste aldaketa bat fatxadako harriaren jartzea da; 19 milioitan garestitu zen proiektua eta teknikoek gomendatuta egin zen. Merkatu zaharraren salmenta hanka-sartzea izan zela esaten du Garitanok (udal euskaltegia ere ez genuen erosi alokairuan egon baitzen) baina erabaki hori bere eskuartean izan zela gogorarazi nahi diot. Alderdi guztiek edifikazio berrirako Plenoan onartutako proiektua ez zuten aurrera eramanez, HBk eta EAk edifikazioa mantentzea erabaki zuten eta hor dago emaitza. Beren erabakia edifikazioa ondarrerako berreskuratzea izan zitekeen.

- Komisioetan eta Plenoan hartutako erabakiak ezin dira aldatu, ez?

- Nere ustez ezin dira aldatu erabaki horiek. Hori Gobernu bakoitzaren erantzunkizuna da eta hasieran aho batez onartutako proiektua aldarrikatzen genuen. Aho batez hartutako erabakia denean serio izan behar da.

- Garajeak askotan aipatzen dira. Non galdu dira?

- Inoiz ez du garajerik eduki proiektuak. Elkoru Udalaren kargu egiten denean, alderdi guztiek onartutako proiektua dauka eskutartean. Beraz, hori aurrera eramanez izan balitz gaurko egoera guztiz ezberdina litzateke. Gu prest geunden garajeak egiteko aukera aztertzeke baina estudioek ziotenez nahiko garaje

zeuden inguru horretan. EA eta HBk erabakita, proiektua aldatu egin zen, ez da Plan Espezialari egokitzen eta soportu urbanistiko legala ez edukitzean, EAjk aspektu legal hori bete beharra gogorazten dio Gobernuari merkatua adjudikatzeko.

- Arau subsidiarioei

Udalak ezin izango duela lizentziarik eman bertan etxeak egiteko. Barruan utzita, Konfederazioak edo beste edonork errekurritu egingo luke arauen aurka eta Bergarako Planeamentua ezin izango litzateke onartu eta Bergararen etorkizuna dago jokoan. Beste gauza bat da bizila-

zuen Konfederazioak edota Diputazioak berak.

- PSE-EEK ibaiaren beste ikerketa hidrolujiko bat eskatu omen du ibaiaren zabalera egokia den jakiteko.

- Ez daukagu hori egiteko ez kapazitate ez konpetentziarik. Hori emanda dator eta horregatik aipatzen dut Konfederazioaren erantzunkizuna, espropiazio hori gertatuko balitz. Eta Zubieta kasuan, Zubieta betidanik egon da ordenazioz kanpo. Udalaren asmo bakarra, lehen eta 3. zenbakiko espropiazioa da, herrirako sarrera errezteko herri barrutik.

- Zergatik 1.goa eta 3.a eta ez Infernukua?

- Legeak, puntu horretan, horretara behartzen gaituelako. Infernukua zergatik ez? Ba teknikoki demostratuta dagoelako beste alde delako bota behar dena.


- Baina bidea zabalitzen bada ibaiaren gainean egingo litzateke

"Urtariletik aurrera irtenbide bat topatu nahi diogu merkatuari"

dagokienez, Fraisko-zurri eta Zubietako etxebizitzek zeresan ugari eman dute...

- Ordenazio barruan utziko bagenitu legearen aurka egongo ginatke eta hori ezin da egin. Legeak esaten du horrelako etxe bat jausi edo botatzen bada, zoru publikoan dagoenez,

gunak egiten ari diren defentsa, guztiz bidezkoa da, etxeak erosi zituztenean ez baitzitzaieen abisatu. Baina esan dezaket Udalak guztien arazoa konpontzeko kapazitatea izango duela. Hori bai, beste instituzio batzuek ere badute erantzunkizuna, etxebizitzak egiteko baimena eman



"Ordenazioz kanpo geratu diren etxebizitzaren arazoa konpontzeko ahalmena izango du Udalak"

HERRIKO ORDEZKARIAK MINTZO

eta hori ere legez kanpo legoke.

- Bai, baina ibaiaren zabalkundeak izan behar dituen irtenbide teknikoak emanda badatoz... Dena den, ez dut uste Zubieta inoiz ikutuko denik.

- PSE-EEK bere baiezkoa ematen badu orain, HBk eman zuen baiezko kondizionalak balorea galduko du?

- Kondizionanterik ez dugu mahai gainean jarriko inoiz. Uste dut 65 alegazio aurkeztu direla eta banan banan aztertuko dira. Gure helburu nagusia araurik hobereak lortzea da eta, ahal bada, alderdi guztien oneritziarekin.

- Industrialdearen gailan, nola daude negoziazioak UCEMekin?


- Urbanistikoki, Union Cerrajera arazo bat da Bergararentzat eta lortu duguna da, nahiz eta sinatuta ez egon oraindik, hor urbanistikoki pendiente zegoen guztia konbenioarekin konpontzea. Industrialdea kokatuko da bertan.

- Maltzaga-Urbinari buruz zer eritzi daukazu?

- Ni horren aldeko Plataforman egon nintzen eje horri lehentasuna emateko. Hori gabe, hipotekatuta gaude, izan ere Euskadiko gunerik atzeratuena baikara bideei dagokienez. Autopista ala autobia? Egoera ekonomikoak markatzen du; kapazidade ekonomikorik ez badugu guztiek jotzen duten soluzioetara jo beharko dugu.

- Eta zergatik hainbeste zalantza N-1 eta Maltzaga-Urbinarekin artean?

- Gure alderdia bien alde azaldu da. Nik, dena



"Beste taldeak bezala, gazteek araudi bat bete beharko dute lokal bat eskatzera badatoz"

den, Beasain-Durango korredoreari lehentasuna ematen diot; azkenik Bergara aldera zati bat egin behar da eta hori ona da.

- Gaztetxearen arazoan, zein da Udalaren jarrera?

- Udaletxe bezala, beti izan gara gazteendako lokal bat negoziatzeko prest. 92ko abuztuan bildu ginen azkenengoz beraiekin eta ordutik ez dira azaldu berriz. 88ko martxoan gazte asanbladak lokal berri bati onarpena eman zion. Bolinagak lokal bera eskeini zien aurreko lejislaturan, azkenean ez zen onartu... eta orain ez dago ezer. Eta beste taldeekin bezala, lokal bat eskatzera datorrenak araudi

bat bete beharko du.

- Hainbat gazteri jarritako denuntziekin ez duzu beren jarrera indartzen?

- Nik ez ditut 6 gazte denuntziatu. Egindako informetan pertsona batzuk identifikatuta agertzen dira; nik ez dut inor denuntziatu baina, alkate naizen aldetik, ezin dezaket onartu, niregana etorri ziren moduan etortzea. Indarrez sartu ziren eta prest nengoen beraiek errezibitzeko. Beste denuntzia bat jarrita daukat Gaztetxearen aurka niri egindako karikatuta batetan egindako irainengatik. Barkamen publikoa eskatzearekin konformatzen naiz.

- Anbulatorioa haun-

ditzea nola dago?

- Osakidetzako ordezkariak izan dira bigarren planta zabaltzeko posibilitateak aztertzeko. 94an bigarren planta egokitzekeo presupuesto bat egon daitekeela eta nere inpresioa positiboa da.

- Frontoiari buruz, orainarte ezin izan da auditorio bezala erabili eta urtarrilean bi espektakulo izango dira.

- Herri askotan gertatzen ari da eta aipatzen dituzun bi espektakulo horiek egin ahal izateko eskakizuna egin ziguten antolatzaileek. Eusko Jaurlaritzarekin kontaktuan jarri eta hainbat seguritate neurri bete behar direla esan ziguten. Asko dira eta guzti hori gertatuko dugu *Miserableak* antzezteko. Udalak neurri guztiak beteko dituen proiektu bat eskatu du eta Udalaren asmoa hori aurrera eramatea da baina ez dakigu noiz.


- Udaletxearen proiektuan badirudi OIaso

.....

**"Maltzaga-Urbina
beharrezkoa da. Bestela
hipotekatuta gaude"**

Dorrea Fundazioarekin akordio batera iritsi zaretela.

- Udalaren proiektua guztiz egokia da. Ez da egia ez zela segurtasun neurririk hartu. Gainera normalean hartzen ez diren neurriak hartu genituen, mikropiloteak erabiltzearena adibidez. Gero gertatu zena gertatu zen baina ez da Udalaren arazoa. Guk geure terrenua zulatu dugu. Gero denuntzia penal bat jarri ziguten, epaileak ez zuen obra geldiarazi baina ez genuen bertan jarraitu, alboan baizik. Fundazioak bere teknikoak ekarri zituen eta geure konponbidea aurkeztu genien. Hor ez da udal artxibategia joango eta zenbait metrotan atzeratzen da guz-



"Udaletxea berriztearen kostoaren erdia ordainduko du Udalak"

ordainduko dugu. 620 milioietatik Udalak % 50a ordainduko du. Garestiagoa irten da merkatua: 300 milioi ordaindu ditugu eta hor % 10a ordaindu digute bakarrik. Harro gaude Udaletxearen berrizteaz; oso egoera txarrean zegoen eta gainera zerbitzu guztien integraztea lortzen da horrek dakarren gastuen gutxiztearekin.

- Egini boikota zergatik?

- Gehiengoak hartutako soluzio politikoa izan

tzeko aukera guztiek daukate, inori ez zaio ukatzen hori. Politikoez hartutako erabakia da baina publizitatea ezartzeko baldintzak aztertu eta legea bete egin behar da.

- Eta udal langileek egidako eskakizuna?

- Sorpresa oso desatsegina izan da neretzat


den jakitea.

- Eta Eginen korrespontsalari egiten zaion kaltea?

- Informazioa jasotzeko aukera badago. Ez dut uste Mikel Elkorobereziarren aurka erasotzen denik. Nere asmoa ez da hori baina berak afektatuta dagoela esaten badit arrazoia eman behar diot. Baina bizitza luzea da...

- Euskal presoekin jarraitzen du?

- Gestoren ordezkariak etorri dira nigana eta nire aktuazioen berri eman diet, Eusko Jaurlari-



"EGINI boikota gehiengoak hartutako soluzio politikoa izan da"

tia. Fundazioko aholkulariak onartu eta sinatu egin zen. Baina demanda penalak hor jarraitzen zuten eta konbenio bat sinatzera behartzen gintuzten. Testu horretan jasotzen dena bere garaian Udalak Olaso Fundazioari planteatu zion, esanez kontziente ginela egindako kalteak ordaintzeko eta horretarako dira hainbat poliza. % 100a kubrituko da. Konbenioan jasotzen da konbenio hori sinatzean demanda penala erretiratuko zutela eta hala izan da.


- Udaletxearen berrikuntzak Udala hipotekatu al du?

- Kostu osoaren erdia

da. Beste garai batzutan (88 eta 91an Diario Vasconi publizitatea kendu eta Gaur Expressen sartzea erabaki zenean) sentsibilidade berdina izatea gustatuko zitzaizkion. Eta asumitzen jakin behar den aktua demokratiko bat izan da; pintadak eta irainekin ez da ezer lortuko.

- EAJ kontra egon daiteke baina Udalak boikot informatiboa egin dezake?

- Zuk esan ez duzun gauzaren bat periodikotan agertzen denean adierazpen askatasuna hor dago eta nik eskubidea daukat informazioa bata edo besteari emateko. Eta informazioa jaso-




"Sorpresa oso desatsegina izan da udal langileen asanbladan EGINi buruzko puntua aztertzea"

langileen asanbladan puntu hori aztertzea, leku kanpo dago. Egin buruzko botazioaren emaitza ekarri didate eta oraindik ez dakit grebarako bozketaren emaitza zein den. Manipulatutako botazioa izan da. Dokumentu hori langileen izean dator. Gustatuko litzaidake langile guztiak idatzi horrekin ados dau-

tzako ordezkariekin ere izan naiz eta eskatutako informazioa bidali diet.

- Beraiek informazioa bidali dizute?

- Idatzitako informazioa ez. Egin behar zituzten aktuazioen berri bakarrik: inbestigazioa nagusiki. Baina konklusioak ez dakizkit. Badirudi ez dagoela nobedaderik. Oraingoz ez daukat ezer.




Gabon jai hauetan opari ederra zure begientzat

UKIPEN LENTEAK

19.000 pzta.

Eta gainera: erabili eta botatzeko See Quence LENTEAK eta GERRI-POLTSA bat DOAN.



ETZAZU AUKERA HAU GALDU!!

Ukipen lenteak
19.000
pzta.ren truke

J. Larrainaga
MULTIOPTICAS

Juan Carlos
Guerra, 1
☎ 79 29 95
20500 ARRASATE

J.M. Barandiaran
Eparantza
☎ 88 99 88
20040 ORDIZIA

Ibargarai, 16
☎ 76 15 75
20570 BERGARA

MOTA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Koldo Elizalde, 8 BERGARA ☎ 76 00 00

ELECTRICIDAD

ELKAR

ELEKTRAGINTZA

76 00 00

Migel Altuna Ikastetxea

Lanbide Hezkuntza Eskolak izen aldaketa ofiziala egin zuen pasa den ostiralean. Ikastetxeko lehen zuzendaria izandakoaren izena hartu du.

Pasa den ostiralean Lanbide Hezkuntza Eskolak izen aldaketa ofiziala egin zuen. Hemendik aurrera Migel Altuna izena izango du, Eskola elementalak izan duen lehen zuzendariaren izena. Normalean izen horiek jartzen direnean hildakoenak izaten dira. Baina ostiralean ikusitakoaren arabera eta berarekin hitz egin ondoren Altunak gorputz edadekoa, baina buru gaztea duela erakutsi zigun. Orain jubilatua dago eta Donostian bizi da, nahiz eta berak dioenez "Bergara beti izan bihotzean".

Migel Altuna amezketarra, apaiza, 1944. urtean etorri zen Bergarara eta berehala hasi zen lanean hezkuntza mailan.

Altunak hasierako garai haiek gogoratuz hurrengo adierazi zuen "eskolaren lehen izena «Escuela elemental de trabajo y profesional mecánico textil izan zen, Ni Bergarara etorri nintzenean eraikuntza egin berria aurkitu nuen eta eskolako lehen zuzendaria Jose Maria Agirre Altos Hornoseko gerentea izan zen".

Garai haietan Altunak gogoratzen duenez, eskolan bazen ikasle mordoxka bat ikasle batzuk eta guztira 4 irakasle, tailerreko irakaslea, kon-tserjea, Tomas Barrena

eta Altuna bera hasi ziren. Horietaz aparte zenbait laguntzaile: lantegietako perito indus-

trialak, ingeniari tekniko eta industrialak. Horiei esker eskola funtzionatzan hasi zen. "Langilego borrekin nire lehen barremana sekulakoa izan zen. Eurek irakaskuntzarako bokazio handia zuten eta nik orain hilda dauden batzuk gogoratzen ditut" dio Altunak. Horien artean Amasorrain anaiak, Txomin matematikako irakaslea eta Gilberto teknologia irakaslea. Gero dibujo irakasle-

ak ziren Jorge Artetxe eta Fernando Azkargorta eta tailerreko irakasle izandakoa, Laskurain, gogoratu dizkigu Altunak.

Ikasketak maila sozialak berdintzeko

"Gente borrek lanaren mundua ondo ezagutzen zuen eta era berean dedikazio izugarria zuten irakaskuntzan, eurek erakutsi zidaten hezkun-



Jose Mari Larrañaga zuzendariak, eskolaren izenean plaka oroigarri bat eman zion Altunari.

• Ertamerika • Asia • Magreb • Hegoamerika •

Txamarra eta jergak, alkandora eta karatiloak, motxila eta boltsak, zamarra eta zakuak, jertse eta jakak, kutxatilik, peto eta prakak, zilarra, osagarriak...

• Guatemala • Nepal • Bali •

Alkandora, koratilo eta sudaderak.

**ARDURA OSOZ
AUKERATUTAKO
ARTISAU-OPARIAK**

JUNBIJU

ASMATUKO DUZU!!
Artekale, 19. BERGARA



tza mundua maitatzera. Gogoratzen dut, anekdota moduan, behin nire bulegoan Agirre zuzendaria eta eskolaren Patronatokoak bildu ginen eta honek esan zuen "eskola hau goregi joan da". Esaldi horrekin adierazi nahi zuen Ingeniariaren semea ingeniaria izan behar zuela eta langilearena berdin, eta guk eskolarekin mentalitate hori aldatu nahi genuen. Horrekin lotuta, Patronatokoari erantzun nion hori zela gure eginbeharra eta zenbat eta gorago izan hobeto" esan digu Altunak.

Hortik aurrera eskolak gorantz egin zuen eta irakaslego aldetik batzuk nazionalak eta besteak Udalekoak ziren. Eskolara sartu baino lehen 14 urterekin zihoazten gazteek maila nahiko apala erakusten zutela eta, egokitze ikastaroak antolatzen hasi ziren. Altunak adierazi digunez eskolaren lehen garai haietan, gutxi ziren ikasten jarraitzen zutenak, inguruko enpresek ikasleak eskatzen baitzituzten eta berehala hasten ziren lanean. Baina izan ziren ikasten jarraitu zutenak ere eta Altunak ikasle baten kasua gogoratzen du. "Ikasle onatari bat, 3. mailan zegoen eta ikasten jarraitzeko asmorik zuen galdetu nion. Gaiari buruz hitz egiteko bere aitarekin izan nintzen eta eurak familian 7 seme alaba ziren eta semeak goi mailako



Bere historian 5 zuzendari izan ditu eskolak. Horien artean, Juan Gallastegi, Migel Altuna, Jose Mari Larrañaga eta Fernando Otaño. Felix Askasibar eta Jose Ramon Arakistain falta dira.

"Hasieran gutxi ziren ikasten jarraitzen zutenak. Berehala hasten baitziren lanean"

DON MIGEL ALTUNA

ikaskuntzak egiteko familiar bilera bat egitea erabaki zuten. Bilera egin ondoren semeak ikasketak jarraitzea erabaki zuten eta Diputazioak ematen zituen dirulaguntza batzuk lortu eta gero Bilbon peritaje ikasketak egin zituen. Orduetik aurrera ikasle gehiago hasi zen goi mailako ikasketak burutzen".

Eskolaren bigarren etapa

Eskolaren bigarren etapan izena aldatu beharra izan zuen Estatu Espainiarreko gobernuaren aginduz eta izen berria "Escuela de Maestria Industrial" izan zen. Ondorioz eskolan bi kategoria

profesional jarri ziren, Ofizial Industrial eta Maisu Industrial eta horrekin eskolan bi departamendu egin behar izan zituzten. Horrekin batera ikasle kopurua izugarri gehitu zen eta ikastetxea txiki gelditu zitzaien eta eraikuntza berria beharra izan zuten. Eraikuntza hori orain seminarioko patioan dagoena da eta bertan, "Dominikoen ortua" zegoen. Altunak garai haiek pozez gogoratzen ditu. "Ikastetxean 700 ikasle inguru genituen matrikulaturik eta eskolaren funtzionamendua ere beste era batera eratzea tokatu zitzaigun. Lau espezialitate genituen: mekanika, elektrizitatea, delineazi-

JOSE LUIS eta MIKEL URTEAGA, 6

- Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa.
- Etxebarruen dekorazioa

☎ 76 07 23 / 76 50 37 / 79 35 17

Siaska

Dena zure haurrarentzako

Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo 25, BERGARA

oa eta administratiboa. Horrek asko gebitu zituen klaseak eta horrela teknologia 20 klase, 20 mekanika eta horrekin gure belburu nagusia (Gizonak lanerako sortzearena) zeharo bete zen" dio Altunak.

Ikasleen antolaketa

Gizonak lanerako sortzearen filosofiarekin, eskolako ikasleek euren antolakuntza propioa bultzatu zuten. Ikasleak eskolan zituzten arazoak plazaratzeko "Camara" zegoen eta bertan espezialitate bakoitzeko ikasleen ordezkari batek hartzen zuen parte. Horiek batera, eskolaren Zuzendaritza Batzordea, irakasleen klastroaren ordezkariak, zuzendariak, ikasketak zuzendariak, administratitzako batek, Udaleko ordezkariak eta gurusoeren ordezkariak parte hartzen zuten.

Pasa den ostiraletik aurrera eskolak aro berri bat hasi du eta Migel Altuna Amezketatik etorritako apaizaren izena harrotasunez izango du Matxiategin egiten ari den eskola berriak. Nahiz eta, Altunak, apalki, "izen hori eskolan izan den edozein Zuzendarirena izan zitekeen, neurria aukeratu dute, baina, merezi, beste edozeinek ere merezi zuen" adierazi digun.

Datorren urtean 50 urte

Lanbide Hezkuntz Eskola 1944.en urtean hasi zen martxan, orduan lau irakaslerekin hasi ziren, baina urteak pasa ondoren aldaketa garrantzitsuak ezagutu ditu.

Lehen garai haietan eskola Bergarako industriaren beharrei erantzuteko sortu zen. Orduan Altunak adierazi digunez: "textila oso garrantzitsua zen eta Altos Hornosen 3 errelebotan zebiltzan lanean milatik gora langile eta enpresak eskolatik irtendako jendearekin perretxikoen moduan ugaldu ziren".

Hasiera batean, eskola, lantegietako eskakizunei erantzuteko sortu zen, eta

lan munduak eskaintzen zituen beharrei aurre egiteko eskolak aldaketak izan ditu. Guztira urte hauetan 5 zuzendari izan ditu (Juan Gallastegi, Jose Mari Larrañaga, Felix Askasibar, Fernando Otaño, Jose Ramon Arakistain), eta guztiek jarraitu dute Altunak markatutako bidea.

Irakaslegoaz aparte, eskola aurrera eramateko beharrezkoa da administrazioa ondo eramatea eta Altunak aipamen berezia izan zuen eskolan idazkari izandakoentzat. "Idazkariak eskolak bezala 3 epe ezberdin izan ditu. Lehen epean Begoña eta Pilar Larrañaga izan ziren, ondoren Maria Jesus eta Pili Amutxastegi eta

azkenik oraindik lanean jarraitzen duten Josune eta Miren Romaratezabala eta Begoña Barrena egon dira. Euri esker eskola aurrera eraman ahal izan dugu, gogoratzen dut notak, matrikulak etab.ak eskuz egin behar zirela eta horrek ordu eta lan asko suposatzen zuen" dio Altunak.

Orain 49 urte hauetan irakasleak, ikasleak, zuzendariak eta idazkariak egindako lanak, opari bikaina izango du Matxiategin eraikitzen ari den Migel Altuna ikastetxearekin eta eskolaren sortzailearen asmoei eutsiz gaurko beharretara egokitu da.



Eskolan idazkaritzan aritutakoak eta dabiltzanak Migel Altunarekin. Ezkerretik eskumara: Begoña Barrena, Miren eta Josune Romaratezabala, Altuna, Maria Jesus Amutxastegi, Begoña Larrañaga eta Pili Amutxastegi. Pilar Larrañaga falta da.

JOSEFINA

- Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
 - Masajeak, solariuma, perikura, estetika...
- Espaloia 4, ☎ 76 35 38

BERGARA

Karrozeria

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

TRATUJO



SAN JUAN BERGARA

☎ 76 35 51

IDATZ IEZAIEZU



**JOSE MARI
ETXANIZ ZORRILLA**

Centro penitenciario de
Puerto II. Apto. 600
Modulo C. Puerto de Santa
Maria 11.500 Cadiz.




**MIKEL ASKASIBAR
GARITANO**

Centro penitenciario
Madrid III. Ctra. Pinto A
San Martin De La Vega
Km.5. 28340 Valdemoro
(Madrid)



**ANE MIREN
ALBERDI**

19 Rue Singel
75016 Paris.



**XABIER OREGI
ETXEBERRIA**

Prisión provincial. Apto.
221 El Acebuche 04080
Almería.



**JOSE RAMON
AIASUI ARETXAGA**

Centro penitenciario de
Ctra. de Meco Km. 5
Alcalá de Henares 28880
Madrid.



**MAITE GURIDI
ELEZPURU**

Prisión provincial.
23000 Jaen.




**MIKEL OSA
ALDEKOA**

Prisión provincial.
Apto. 394
A Coruña.




**MARIA EUGENIA
GRACIA CAMPILLO**

Centro penitenciario
Mujeres.
Avenida de los Poblados
nº 2 28044 Madrid.



JULIAN TENA

Apto. 552256
República de Panama.



**HARITZ EGIDAZU
GARAIONDO**

Centro penitenciario
Monterroxo 27560 Lugo.



**PEDRO BELASTEGI
ZUBIA**

Prisión provincial.
Apto. 143
Algeciras (Cadiz).




**LUIS MARI
AZKARGORTA**

Prisión provincial.
Paseo del Parque nº 10
León.




**JOSE LUIS LOIDI
LARRAÑAGA**

Apto. 77 Modulo 2 13200
Manzanares (Ciudad Real).



**JUAN CARLOS
ARRIARAN**

Apto. 209 Cumana.
Estado de Sucre
Venezuela.



**JABIER LAZKANO
PEREZ**

Centro penitenciario de
Ctra. de Meco Km. 5
Alcalá de Henares 28880
Madrid.



**BITTORE AIERBE
SARRIEGI**

Prisión provincial Mujeres
Villanubla 47620
Valladolid.



**IÑAKI IBABE
GURIDI**

Centro penitenciario
Pereiro De Aguilar,
Modulo 4.
32710 Madrid.



**LUIS ETXEBERRIA
PABON**

Centro penitenciario
Madrid III. Ctra. Pinto a
San Martin De La Vega
Km. 5 28340 Valdemoro
(Madrid).



**IÑAKI
ARIETALEANIZ
TELLERIA**

Centro penitenciario Ctra.
de Meco Km. 5 Alcalá de
Henares 28880 Madrid.



AMNISTIA DA PAKEA



1993

0

1

2

3

4

SARIAK



BENITO CANTERO


"III. BERGARA KIROL SARIAK" aukeraketako irabazleak hemen ditugu. Iker Muruamendiaraz pelotaria dugu 1993ko kirolaririk onena, Iñigo Igartua, berriz, goi mailako kirolaririk onena aukeratu dute zuen botoek (iaz ere berak irabazi zuen). Kirol talderik onena aukeratzeko orduan Lokatza eta Pol-Polek boto kopuru berdina lortu dute, eta biek jasoko dute saria. Azkenik, Pello Garitanok eraman du aurten, aurreko edizioetan Kruz Jauregi eta Enrique San Nicolasek jaso zuten Sari berezia. Aurreko edizioetan baino boto gutxiago jaso ditugu, normala da botoak emateko astebete bakarrik eduki duze eta. Hala ere, 150 inguru izan dira. Botoemalen artean, Inmaculada Monroyk eta Mikel Martinezek astebukaera baterako eskiatzera joateko bi pertsonarentzako bidaia bana jaso dute eta Jon Ander Garitano eta Txaro Garciari, berriz, Kirol Zerbitzuko karnet bana tokatu zaie.

**KIROLARIRIK
ONENA**

Iker Muruamendiaraz pelotariak eraman du aurten kirolaririk onenaren saria (50.000 pzta. kirol materialetan). Aurreko edizioetan irakurleen botoek aukeratu dute Bergarako kirolaririk onena baina aurten, herriko kazetari berriemale eta Kirol Zerbitzuko arduradunekin osatutako batzordeak erabaki du.

Muruamendiarazek 16 urte ditu eta Gipuzkoa mailan jokatu diren pelota txapelketetan bere arerioen gainetik nabarmendu da, sari ugari eskuratu baititu. Aurten, besteakbeste, Elgetan jokatzeko 4 t'erdiko pelota txapelketa irabazi du jubencil mailan eta txapelketa horretan kadete mailan ere nagusitu izan da. Deba Arroko pelota txapelketa edota Gipuzkoakoa eta Euskadiko liga ere irabazi ditu.

Ikerrek, 10 urte zituenan ekin zion pelotan jokatzeari: *"aitarekin batera Elosura joaten nintzen eguna pasatzera eta hango frontoian eman nituen lehen urratsak"*. Bergara Kirol Elkarteke Pelota Sailaren barruan, txapelketa ugari irabazi



Iker Muruamendiaraz, Bergarako kirolaririk onena.

ditu han eta hemen, alebin, kadete zein jubencil mailetan.

Iker Muruamendiaraz-

en nahia Zezeaga, Etxaniz edota Oregiren mailara heltzea da eta, argi dago, bide onetik doala. Bere

Bergara Kirol Sariketako irabazleak

entrenatzaileek ere profesional mailara heltzeko aukera haundiak ikusten dizkiote. Aurreko koadroetan jokatzeko eta Julian Retegi du gustuko. Eskuz binakakako Txapelketako finala nortzuk jokatu duten galdetzerakoan, Retegi eta Beloki/Alustiza-Errandonea izan da bere pronostikoa.

**GOI MAILAKO
KIROLARIRIK
ONENA**

Iñigo Igartua, ziklo-kros txirrindularia, aukeratu dute irakurleen botoek goi mailako kirolaririk onena. Iñigok 35 boto lortu ditu eta bere atzetik Jose Mari Zezeaga eta Agustin Aranzabal (31na boto) eta Ion Lazkano (23 boto) sailkatu dira. Iazko edizioan ere bera izan genuen goi mailako kirolaririk onena.

Igartua Bergarako kirolaririk ezagunenetakoa dugu, gaur egun estatuko ziklo-krosaririk onena. 1991-92an Espainiako Txapelketa irabazi, zuen afizionatutik mailan, eta iazko denboraldian Euskadiko Txapelduna izan genuen. Aurtengo Euskadiko Txapelketa igande honetan jokatu da Diman. Lehen saria Bergarara ekartzeko ahaleginak egingo dituela ziur gaudete.

KIROLARIRIK ONENA:

Iker Muruamendiaraz. Pelota.

GOI MAILAKO KIROLARIRIK ONENA:

1. Iñigo Igartua. Ziklo krossa. 35 boto.
2. Jose Mari Zezeaga (pelota) eta Agustin Aranzabal (futbola). 31na boto.
3. Ion Lazkano (eskalada). 23 boto.

KIROL TALDERIK ONENA:

1. Pol-Pol Mendizale Taldea. 42.
2. Lokatza Ziklismo Eskola. 36 boto.
2. Bergara Igeri Elkartea. 20 boto.

SARI BEREZIA:

Pello Garitano (Lokatza arduradunetako bat).

Bergarako goi mailako kirolaririk onena irten dela esan diogunean asko poztu da: "herrikideek zure lana aitortzea eta saritzea kirolari bati gerta dakioken gauzarik politena da" esan digu.

KIROL TALDERIK ONENA

Pol-Pol Mendizale Taldea (42 boto) herriko kirol talderik onena aukeratua izan da. 50.000 pza. jasoko ditu kirol materialetan. Lokatza Ziklismo Eskola bigarren sailkatu da (36 boto) eta euren atzetik Bergara Igeri Elkartea (20 boto) eta Ariznoa Gimnasia Erritmikoa eta Bergara Kirol Elkartea (12na boto) sailkatu dira. Herrian kirol mailan lan gehien egiten duten taldeak lortu dituzte lehendabiziko postuak.

SARI BEREZIA

Herrian kirol mailan urtetan egin duten lana-



Iñigo Igartua, goi mailako kirolaririk onena.

gatik nabarmendu diren direktibo, entrenatzaile e.a.en artean ematen den sari berezia, aurten Lokatza Pello Garitanori ematea erabaki du Kirol Sariketako Batzordeak.

Pello pertsona oso ezaguna da herrian, saltsa guztietan sartuta dago eta. Gaur egun, Lokatza arduradunetako bat da Jesus Kortabarría "Kaxeta" eta Jose Mari Gabilon-


dorekin batera, baina horrez gain hainbat auzotako jai batzordeetan ere buru-belarri aritzen da uda partean batez ere.

Bergara Kirol Elkarte-ko direktibo izandakoa ere bada, eta Aritzeta, Orfeoia, Musika Eskola eta beste elkarte askotan lanean jardundakoa.

Aurtengo Kirol Sariketetan, azken urteetan ziklismoan egin duen lana aitortu nahi izan dio Batzordeak.

SARI BANAKETA

Abenduaren 29an, arratsaldeko 7.30etan, Kultur Etxean banatuko



Enrique San Nicolasek eraman bazuen, aurten Pello Garitanori eman zaio Batzordearen sari berezia.



Pol-Pol Mendizale Taldea herriko kirol elkarerik onena.

dira sariak. Kirol materialetan gastatzeko emango zaien diruaz gain, trofeoak egongo dira irabazle guztientzat eta, bestalde, Mallorkako Palmara aste osorako bi pertsonarentzako bidaia zozketatuko da Kirol Talde guztietako ordezkarien artean. Beraz, hilaren 29an Kultur Etxean izan zaitezela eskatuko genizueke, zuen interesarako da eta.



IPAR CENTER



EMAKUMEZKOENTZAKO
SKI MONOA



GIZONEZKOENTZAKO
SKI MONOA

17.990

19.990

**Skiatzeko era guztietako
osagarriak**

**Kirol jantziak,
txandalak, botak
zapatilak...**

HELBIDEA:
Aitziturri (San Lorentzo)
BERGARA

ORDUTEGIA:
Astelehenetik
larunbatera:
10.00-13.30 / 15.30-20.00
Igandetan: 11.30-14.00

Ailegatu da eguna. Gabon ga-ua. Otordua familiartekoe-kin pasatzeko eguna, tris-tea batzuentzat, urteko egunik alai-tsuena beste askorentzat, gaztetxo-entzat batez ere. Olentzero, begi-gorri, aurpegi ilun, ikatzez beztua -ikazkina ei da Olentzero- pipa hor-tzian duela eta opariz betetako sakua bizkarrean, tximiniatik sartuko zaigu etxera. Formalak izan direnei erre-galu ederrak, bihurriei, ostera, ika-tza. Ez da hainbesterako izango...

Santo Tomas egunak, txistorrak, loteriak, neguak, Gabon gaua bertan dugula iragartzen digute. Oporrak. Ahal duena eguzkitara joango da, beste batzuk, berriz, eskiatzera. Ge-ro eta jende gehiago irtetzen omen da egun hauetako jai egunak apro-betxatuz. Krisia?

Krisi garaian gaude eta agintariek zubiak kentzearen aldeko iritzia-kiak plazaratu dituzte. Abenduan jai egun

ugari izaten direla eta ekonomia-rentzat kaltegarria dela. Zubirik ez!! Datorren urteko Gabonetan, Errege eguna ez omen dugu urtarrilaren 6an ospatuko. Asteartea tokatzen dela eta, igandera pasatzeko asmotan da-biltza agintariak. Errege eguna: ur-tarrilak 4. Imaginatzen duzue?

Ahal duenak aprobetxatu dezala, aurtengo Gabonetako oporrak az-kenak izan daitezke eta, datorren urtetik aurrera lanera.

Berrigara egiten dugunok opo-rrak izango ditugu. Beraz, urtarrila-ren 14ra arte ez duzue errebistarik izango. Indarberrituta etorriko gara eta sorpresak egon daitezke. Ez da ordea, urteko lehen sorpresa izango, Errege bezperan, urtarrilak 5, Ber-gara eta Antzuolako telefonoak bil-tzen dituen "Berrigara Gida 94" libu-ruxka jasoko baituzue etxeetan. Opari bikaina. Ordura arte ondo ibili eta urteberrian.



PORTADAKO ARGAZKIA ETA GAINEKO HAU BENITO CANTEROK ATERATAKOAK DIRA

• GABONETAKO AGENDA • GABONETAKO AGENDA •

24 OSTIRALA

• **ENKARTELADA:** "Etxean nahi ditugu" lemapean, Senideak-ek antolatutako enkartelada San Martin Plazan 18.30etan.

• **ZINEA:** "Amor a quemarropa" Val Kilmer, Brad Pitt, Dennis Hopper eta Patricia Arquette aktoreekin. Zine beltza. Quentin Tarantinok (Reservoir dogs) idatzia. 17.00etan Novedadesen.

• **ERAKUSKETA:** Bergarako margolarien erakusketa Kultur Etxean (abenduaren 23tik urtarrilaren 9ra arte).

• **BORONDATE ONEKO** Kanpaina: Bergara-Durango ibilbidea bi norabideetan beteko da, errepidean istripu edota aberiaren bat izan dutenei laguntza eskaintzeko. Parte hartu nahi dutenek Pol-Polen eman dezakete izena 19.00etatik 20.00etara.

• **FARMAZIAK:** Estella. Gaeuz: Amezua (Arrasaten).

25 LARUNBATA

• **PELOTA PARTIDUAK:** Bi partido jokatu dira 17.00etan hasita Udal pelotalekuan.

Soroa III- Oregi / Telletxea-Lasa III.

Etxaniz-Tolosa/Urionaguena-Zezeaga.

• **ZINEA:** "Amor a quemarropa". 17.00, 19.30 eta 22.30etan Novedadesen.



Zuzendaria: Tony Scott.

• **MEZA NAGUSIA:** Natibitate Eguneako Meza Nagusia San Pedro eta Santa Marinan 12.00etan.

• **FARMAZIAK:** Mozos. Gaeuz: Ruiz (Arrasaten).

26 IGANDEA

• **ZINEA:** "Dave, presidente por un día". 17.00, 19.30, 22.15etan Novedadesen.

Matinala: "Mira quien habla...".

• **OGIA:** Bolintxo.

• **FARMAZIAK:** Mozos. Gaeuz: Morales (Arrasaten).

27 ASTELEHENA

• **TXAPA IRRATIA**ren bilera 17.00etan Kultur Etxean.

• **UR JOLASAK:** 10.30etatik 12.30etara igerilekuetan.

• **HAUR JOLASAK:** 15.30etatik 18.30etara kiroldegian.

• **SUKALDARITZA** Lehiaketa haurrentzat 16.00etan Plazan.

• **IPUIN KONTAKETA:** Antton Irustaren eskutik 16.30etan Antzuolako zinean. Ondoren txokolatada.

• GABONETAKO AGENDA • GABONETAKO AGENDA •

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean, oinetakoak, opari gaiak, jostailuak, zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

ETXAGI

Jatetxea


Afariak - Bataioak
Jaunartzeak

Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

• GABONETAKO AGENDA • GABONETAKO AGENDA •

- **ZINEA:** Ikuslearen eguna. "Dave: presidente por un dia".



Zuzendaria: Ivan Reitman.

- **FARMAZIAK:** Camacho. Gauez: Azkoaga (Arrasaten).

28 ASTEARTEA

- **MUS TXAPELKETA** azkarra 15.30etan Jubilatuetan.
- **UR JOLASAK:** 10.30etatik 12.30etara igerilekuetan.
- **HAUR JOLASAK:** 15.30etatik 18.30etara kiroldegan: Ginkana...
- **ZINE-GAZTE:** "La bella y la bestia". 18.30etan Novedadesen.

Ekitaldi Jaialdia Zabalotegin

Asteartean, abenduaren 28an (eta ez da inuzentekeria), Bergarako Olinpiada Batzordeak antolatuta, jaialdi bat izango da Zabalotegiko aretoan gaueko 10etan hasita. Ekitaldi nagusia play-back lehiaketa izango bada ere, bertso eta txiste txapelketak, Virago antzerki taldearen "Degustacion de entremeses" emanaldia eta beste hainbat sorpresa ere izango dira ikusleen gozamenerako. Mikel eta bere taldeak ere bere aurkezpena egingo du jaialdi honetan, zuzenezuzenean (oraingoan play-backik gabe) hainbat kanta eskeiniz.


Play-backeko lehiaketa parte hartzeko (oraingoz 17 taldek eman dute izena) Arrano, Pol-Pol edota Etxagi tabernetan eman dezakezue izena.

Entsaiatzeko aukera emango zaie parte hartzaile guztiei ondorengo egunetan: osteguna 23 (4retatik 7etara), ostirala 24 (4retatik 8etara), larunbata 25ean goizez eta igandean, hilak 26, egun osoz. Lokala garbi mantendu eta giltza Pol-Polen uzteko eskakizuna egin dute antolatzaileek. Play.back lehiaketako irabazleek afari bat Etxagin eskuratuko dute.

Sarrerak, aurrez erosi ezker 350 pezeta balio dute eta, egunean bertan erositara, 500 pezeta. Bildutakoa Bergarako Olinpiada batzordeak uztailean antolatu ohi dituen eginkizunetara bideratuko da. Antolatzailerik jaialdi hau antolatzeko dirulaguntza eman duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiete.



Pedro Mujika, Leire Madariaga, Esti Millan, Gema Sainz, Marili Romero eta Laura Martin Virago taldeko partaideak.

• GABONETAKO AGENDA • GABONETAKO AGENDA •

BOUZAS-VILLAR

Margoak eta paperezatuak. Moketa tinkatua jartzen espezialistak.

Zurradero 8, 1.A ☎ 760612 BERGARA Iparragirre 17, 5. ☎ 723091 URRETU



• GABONETAKO AGENDA • GABONETAKO AGENDA •

• **FARMAZIAK:** Puy. Gauez: Español (Arrasaten).

• **MAHAINGURUA:** Idolazek antolatuta, Kirolari buruz jardungo dute, Iñaki Perurena Abraham Olano, Salvador Vergara eta Maria Luisa Irizarrek. Moderatzailea: Asier Aranguren. 19.00etan Antzuolako zinean.



Iñaki Perurena.

29 ASTEAZKENA

• **TUTE TXAPELKETA** 15.30etan Jubilatuetan.

• **FUTBOLA:** Gazte txapelketa. Bergara-Real Sociedad. 17.00etan Ipintzan.

• **UR JOLASAK:** 10.30etatik 12.30etara Igerilekuan.

• **HAUR JOLASAK:** 15.30etatik 18.30etara Kiroldegian: Altxor bila...

• **FARMAZIAK:** Guallar. Gauez: Corcuera (Arrasaten).

• **BERTSO-KANTU** Jaialdia 19.00etan Antzuolako zinean. Partaideak: Jesus Mari Irazu, Maddalen Lujanbio eta Mikel Markez.

30 OSTEGUNA

• **UR JOLASAK:** 10.30etatik 12.30etara Igerilekuan.

• **FUTBOLA:** Gazte txapelketa. Eibar Urko-Aloña Mendi. 17.00etan Ipintzan.

• **HAUR JOLASAK:** 15.30etatik 18.30etara Kiroldegian.

• **GIMNASIA** Erakusteldia 17.00etan Kiroldegian. Eta 18.00etan toki berean txokolatada.

• **KALEJIRA:** Kiroldegitik Plazara 18.45etan.

• **KIROL ARGAZKIAK:** Ion Lazkanoren mendiko argazkien erakusketa Kiroldegian hilaren 27tik 30era.

• **FARMAZIAK:** Estella. Gauez: Irizar (Arrasaten).

• **BIZAR-ZURI:** 19.30etan irtingo da Udal Biltegitik (Kultur Etxe parean) eta herriko kaleak zeharkatuko ditu.

• **ZINE-KLUB:** "Danzón". 19.30etan Novedadesen. Mexikarra.

31 OSTIRALA

• **FUTBOLA:** Gazte txapelketako finala 15.30etan Agorrosinen.

• **SAN SILVESTRE** Krossa. Irteera, 18.00etan Plazan. Izen ematea (dohain) ordu erdi lehenago.

• **FARMAZIAK:** Mozos. Gauez: Ruiz (Arrasaten).

• GABONETAKO AGENDA • GABONETAKO AGENDA •

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE




ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

• **GABONETAKO AGENDA • GABONETAKO AGENDA •**

• **ZINEA:** "La tapadera". Tom Cruise eta Gene Hackman aktoreekin. 17.00etan Novedadesen.



Sidney Pollack-en azken filmea.

1 LARUNBATA

• **PELOTA PARTIDUAK:** Eskuz binakako Txapelketako partidua: **Salaberria-Elkoro/Urionaguena-Tolosa**. 16.30etan Udal Pelotalekuan.

• **ZINEA:** "La tapadera". 17.00, 19.30 eta 22.30etan Novedadesen.

2 IGANDEA

• **ZINEA:** "La tapadera". 17.00, 19.30 eta 22.15etan Novedadesen. Matinala: "Bambi" 11.30etan.

3 ASTELEHENA

• **ZINEA:** "La tapadera". 19.30etan Novedadesen. Ikuslearen eguna.

• **BOLEIBOL TXAPELKETA**ren hasiera. 14 urtetik gorakoentzat.

4 ASTEARTEA

• **FUTBOLINA:** Oilagorra tabernan futbolin txapelketa jokatuko da 15.30etatik aurrera.

• **MISERABLEAK** lanaren entsaiu orokorra Musika Eskolakoentzako eta haurrentzako. 19.30etan Frontoian.

5 ASTEAZKENA

• **ZINE-GAZTE:** "La leyenda del viento del norte". Marrazki bizidunak. 18.00etan Novedadesen.

• **ERREGE KABALGATA:** 19.30etan Mizpirualdetik irten eta kaleak zeharkatuz.

• **BOLEIBOL TXAPELKETA**ko finala Kiroldegian.

6 OSTEGUNA

• **MISERABLEAK:** Rock-opera muntaiaren estreinaldia. Frontoian 22.30etan. Sarrerak 1.000 pza. Ostirlean bigarren emanaldia ordu eta toki berean.

• **ZINEA:** "Blanco humano". 17.00, 19.30 eta 22.15etan.



• **GABONETAKO AGENDA • GABONETAKO AGENDA •**



PINTURAS BERGARA

PB

Aranerreka, 32 behea. BERGARA.
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• **INDUSTRIARAKO PINTURAK • APAINKETARAKO PINTURAK • GARBIKETAK • ERROTULOAK • Etab...**



GUIPUZCOANA

EGAÑABERRI
E. M.


SAN JUAN AUZOA, ZIG
☎ 76 36 42
20570 BERGARA



GUIPUZCOANA


Paketean garraio eta banaketa

Gabonak gustoko dituzu?



Migel Mendibil
Sukaldaria

Bai, batez ere familian somatzen den elkartasun giroagatik. Kanean ere oso giro ona eta jatorra izaten da. Halere guraso eta semeen arteko aintzina-ko elkartasun hura, gazteen partetik apurtzen da. Ondo egongo litzateke Gabon, Natibitate eta Gabon Zahar egunetan juer-gara ez irtetzea.



Valen Kalboetxeaga
Rockeroa

Niri ez zaizkit batere gustatzen. Diru gehiegi gastatzen dela uste dut. Ondo afaldu nahi baldin baduzu urteko edozein egunetan egin dezakezu eta gainera, merkeago irtetzen da. Nik familian ospatzen ditut, baina bakarrik biziko banintz ez nitzuke ospatuko.



M. Eugenia Igarza
Dendaria

Batzutan triste xamarak ere badirela pentsatzen dut, baina gustatzen zaizkit. Gabonetan denda lana gehitu egiten da eta egun horiek herrian pasatzen ditugu. Ah! eta urtean behin, behintzat, mezetara joaten gara eta hori urteberri egunean izaten da.



Eva Arevalillo
Gimnasia entrenatzailea

Gustatzen zaizkit baina txikitan askoz ere ilusio haundiagoa izaten nuen. Orduan Gabonetako kontua gehiago sinisten nuen: zoriona, erregalukak... eta guzti hori. Orain berriz, aurrean jartzen dizuten eskaparate bat bezala ikusten ditut. Baina, tira oporrak dira eta aprobetxatu egin behar.



Maitane Larrañaga
10 urteko ikaslea

Bai, asko. Ondo pasatzen dut Gabonetan. Opor nahiko luzeak izaten dira eta lagunekin ibiltzeko aukera izaten da. Desiatzen egoten naiz Gabonak etortzeko. Gainera erregalukak... Aurten bizikleta bat oparituko balidate oso pozik jarriko nintzateke.



Jabier Larrañaga
Tabernaria

Uste dut familia giroan pasatzekoak direla. Gustokoa baduzu ongi, baina bestela... Gero bakoitzaren egoera ere kontutan izan behar da. Ongi baldin bazaude ondo pasatzen duzu, baina bestela... Egunik onena Erregetako bezpera da, lagunak afaltzeko biltzen gara eta.



Zezilia Lazpiur
Udaletxeko langilea

Ez, oso tristeak direla pentsatzen dut eta ahal izanez gero kanpora joango nintzateke. Aurten ezingo naiz joan lan egin behar dudalako... Tristetak dira, familian biltzen garelako eta beti falta da bateronbat... Gustatzen zaidana opariak egin eta jasotzea da. Kanean giro polita izaten da.



Joakin Zeziaga
Jubilatuetao presidentea

Gustoko ditut. Etxean egunik politena Gabon gaua da, lau semeak eta suina elkartzen gara eta. Mendigoizalea naiz eta azken 20 urteetan Natibitate egunean Txindokira joateko ohitura daukat.

Bestalde euskal preso politikoekin ere asko gogoratzen naiz.



Gisasola burdinaki denda Eskaparate Lehiaketako irabazlea

Gisasola Burdinakidendak irabazi du aurten Udaleko Kultur Zerbitzuak konbokatutako III. Eskaparate Lehiaketa. Iaz epaimahaiaren aipamen berezia jaso ondoren, aurten lehen saria lortu du Gisasolak.

Sari gisa, 100.000 pezeta eta Udaletxearen plaka oroigarria jasoko du. Bigarren saria (50.000 pta.), iaz bezala, M2 Errotuloakentzat izan da eta hirugarrena (25.000 pta.), berriz, Ninika loradendak eskuratuko du.

Gisasola Burdinaki dendak Subijai (1991) eta Alga (1992) orainarteko irabazleak ordezkatzeko dituzten lehiaketa honetako palmaresean.

Aurten 24 partaidea izan dira (27 lehen edizioan eta 25 iaz) baina epai-



Gisasola Burdinaki denda, Eskaparate Lehiaketako III. edizioaren irabazlea.

mahaikoen eritziz, "eskaparateetan apainketa aurreko urteetako baino hobea izan da eta oso zaila izan da erabakia hartzea. Dena den, maila oso altua da eskaparateetan ikusten dena. Azke-

nean, orijinaltasuna, iragarpenaren eragin-kortasuna eta kalitatea aintzakotzat hartuz, aurtengo saridunak erabaki ditugu".

Partaide gehienek salgai dituzten produktuak

erabili izan dituzte eskaparateak apaintzeko eta, irabazlearen kasuan ere, Gisasolan salgai aurki ditzakegun hainbat produktu (palak, iltzeak, kuboak, edalontziak etab. luze bat) nahastuz oso ja-

ARIZNOA

Taberna

- Gosariak •
- Pintxo bero eta hotzak •

Irala 1, BERGARA ☎ 76 52 30

LAKOTA O.E.

BURDINAKI DENDA INDUSTRIARAKO HORNIKUNTZA

Amillaga, 1
3. pabiloia
BERGARA

Tfnoa eta Faxe:
76 08 32

NINIKA



INTERFLORA

loradenda

iotza berezia diseinatu du Uxue Azkarate bergararrak, Gisasola Burdinaki dendaren jabea den Patxi Berraondoren koinatak hain zuzen ere.

Bigarren saria eskuratu duen M2 Errotuloak dendako eskaparatea kartoiez egindako paisaia menditsu eta elurrez-tatu batekin (Gabonetako postale bat ematen du) apaindu dute eta, paisaia tunel azpitik zeharkatuz, tren elektriko oso sinpatiko bat, gatzetxoek Olentzerori edota Orientetik etorritako Erregei eskatzen dieten horietako bat. Trena bueltaka ari da etengabe eta herri txiki bat ere bada tartean. Trenak hirugarren saria ekarri die Maite Agirrezabal eta Mariasun Igarza M2 Errotuloakeko jabeei. Nork esaten zuen trenak ez direla inoiz garaiz helitzen?

Bestalde, hirugarren saria irabazi duen Ninika loradendak ere jaiotza bat aukeratu du eskaparatea lantzeko eta, nola ez, jaiotzaren ingurua lore dotorez apaindu du Mari Cruz Maiztegik. Ninikako

24 partaide izan dira aurtengo edizioan. Gehienek jaiotza aukeratu dute apaingarri gisa

eskaparatean Orienteko Erregeak Jesus Haurtxo-ari opariak eramaten ageri dira eta eskaparatearen bestaldean, berriz, idazten ari den Bizar-Zuri mugikor bat ikus daiteke.

Era guztietakoak

Aurten ere, era guztietako dendek hartu dute parte eta herritarrek eskaparate benetan bikainak ikusteko aukera izan

dute egunotan.

Gabonak hurbildu ahala, dendak apaindu eta, bide batez, Gabonetako giroa piztuz joan da. Astelehenean amaitzekoan eskaparateak ikusgai izateko epea baina pentsa daiteke hainbat eskaparate (irabazleak tartean) daudenetan jarraituko dutela herritarrek egindako lanaz jabetu eta gozatzeko azken aukera izan dezaten.



M2 Errotuloak dendak bigarren saria lortu du eskaparate honi esker.

ERLOJU DENDA

AINH A

BITXI DENDA

- ZERBITZU TEKNIKOAK • ERLOJU ETA BITXI TAILERRA •
- PILA ALDAKETA • KORREA ETA PASADORE ALDAKETA •
- URRE ETA ZILARREZ TXAPATZEA •

Boni Laskurain, 2 (sarrera Alkabietatik) BERGARA ☎ 76 47 40

BELENGUA

Taberna

Pintxoak, kafeak...

Ozaeta 12 ☎ 76 20 24

BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz 4, EIBAR
☎ 79 63 42 ARRASATE

Gabon musikalak

**250 bergarar
protagonista
Anoeta estadioan.**

**San Pedro eliza
toperaino,
Gabonetako
kontzertuan.**

**Umore Ona
taldeak 50.
urteurrena
ospatzen du egun
hauetan.**

**Miserableak
rock-opera
muntaiaren
euskarazko
bertsioa Errege
egunean
estreinatuko da.**



Aurten ere jendetza izugarria bildu da Gabonetako kontzertuan.

JABIER AREITIO

Ostegunean Gipuzkoako Futbol Federazioaren 75. urteurrena ospatzeko asmoz jokatu zen Euskadi eta Boliviaren arteko partiduan Bergararrek protagonismo handia izan zuten. Udal Musika Banda, Aritzeta abesbatza, Bergarako Orfeoia, Tipleen abesbatza, Orfeoi Gazteak eta Xamatx dantz taldeak parte hartu zuten. Abesbatzek Alfredo Gonzalez eta Valen Moñuxek Gipuzkoako Federazioarentzat egindako himnoa abestu zuten eta Xamatxek bi taldeetako jokalariei ohorezko arkua eta aureskua egin zien.

San Pedro jendez gainezka

Urtero egiten den Gabonetako kontzertuari dagokionez, honek seku-

lako arrakasta lortu zuen. San Pedroko eliza jendez leporaino izan baitzen eta kalkuluen arabera 1.000 pertsona inguru bildu batziren. Udal Bandak, Aritzetak, Orkestrak eta

Orfeoiak bi ordutako kontzertua eskeini zuten. Ondoren, Kontzertuari merezitako amaiera emateko, talde guztiek elkarrekin Alfredo Gonzalez zuzendaritzapean

Guridiren "Eusko Irudiak" abestu zuten. Musikarekin jarraituz hurrengo urtarilaren 6 eta 7rako Frontoian "Miserableak" rock-operan estreinatuko da. Sarrerak 1000 pzta.



1960.ean Umore Ona abesbatza TVEko programa batean kantatzera joan zen Madrilera. Argazkian ikus ditzakezue abesbatzako kideak Madrileko parke batean.

balioko du eta Udaleko Kultur Zerbitzuan izango dira salgai. Dena den urtarrilaren 4ean arratsaldeko 7:30etan haurrentzako, soilik, zabalik izango den entsaiu orokorra egingo dute.

"Miserableak"en herriko 150 pertsonen hartuko dute parte Valen Moñux eta Alfredo Gonzalezen zuzendaritzapean. Rock-operan aktore eta musikariez aparte, Kuku ma hankapalu taldeak lanaren eszenografia egin du. Bestalde, "Miserableak"en jatorrizko testoa ingelesez zegoen idatzita eta berau euskarara itzultzen Pello Txintxurreta, Migel Moñux eta Rafa Sanchez aritu dira.

Umore Onak 50 urte

Umore Ona abeslari

abesbatzak aurten 50 urte bete ditu. Hasiara batean Aixkar tabernan hasi ziren abesten eta Genaro Suinagak, Jesus Berroyak, Pantaleon Oregi, Ignacio Madinabeitia, Andres Agirre, Patxi Lamariano, Roman Mugikak, Joseba Labordak, Gallastegi anaiek eta Bixente Okiak osatzen zuten taldea.

Bost urte pasa ondoren lagun talde honek Umore Ona elkarte sortu eta herriz herri ibili ziren. 1950eko hamarkadan taldeak ospe handia lortu zuen Roman Mugikak esan digunez: "1950ean Donostian Santo Tomas egunean antolatzen zen abesti-lehiaketa batean laugarren izan ginen, 10 urte beranduago Maria Cristinan ere izan ginen kantatzen Alemaniako enpresa batek egindako kongresu batean eta



"Miserableak" muntaia antzeztuko da urtarrilaren 6 eta 7an.

arrakasta handia izan genuen Alemaniara joateko eskatu baitziguten".

Eurek danetik abesten zuten, baina batez ere euskal abestiak eta musika Errusiarra. Taldeak kanten zerrenda osatzeko Migel Gonzalezen laguntza zuen, batez ere Gabon kantak egiteko orduan.

Orain Umore Onan jarraitzen dute abesten, Mugikak dioskunez "Antzuolako eta Soralezeko kide berriak ditugu, baina kantatzeko orduan Orfeoiaekin aritzen gara gehienbat. Nabiz eta hasierako kideek pixkanaka Orfeoira joateari utzi diogun".

Erlojutegia

IRUDI
Bitxitegia


OIHAL PUSKAK

FERNANDEZ
OIHALAK

Zubizaretza

YAZKI
gazte

MACAVI
Jean Louis David



**IBARGARAI ALDEKO
Merkatarien
Elkartea
BERGARA**

LURRINDEGIA
alga

**LAGUN ARO
RAC**

**TENERIFERAKO BIDAIA,
bi lagunentzako,
zozketatuko dugu
gure bezeroen artean.
Zozketa 1994ko urtarrilaren
10ean egingo da**

BOLINTXO
KIROLAK

7 MARES
IZOZKIAK

M2
ERROTULOAK

IZADI
sentiveri

Flore Nirika

Prontaprint!
INPRIMATEGIA

J. Larranaga
MULTIOPTICAS

ZORIONAK

HALCON
— BIDAIAK —

EGUZBITZA ERRETEGIA

Urtarrilaren 4an
arratsaldeko 8etan
sagardotegia
zabaltzen dugu.

- ✓ Bakailau tortila
- ✓ Saiheskia
- ✓ Intxaurrak eta gazta
- ✓ Sagardoa nahi beste

Prezioa: 2.000 pta.

Jaiegunetan enkarguak
hartzen dira.

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ Motorren bobinaketa
 - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48

IRRINTZI

Kafetegia

Kafea da gure
berezitasuna

☎ 76 20 50

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguak

Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

HIRU BIDE

BAZKARIAK,
AFARIAK,
EGUNEKO
MENUAK.

Jatetxea benta


Urteaga 9 ☎ 76 18 45

Euskadiko futbol selekzioak lehiaketa ofizialetan parte hartu beharko luke?



Ana Gonzalez
12 urte, ikaslea

Nere ustez bai. Mundialetan ere txapelketa ona egingo lukeela pentsatzen dut.



Ramon Ambroy
57 urte, langilea

Noski baietz, bertakoak gara eta. Jokalaririk onenak hemengoak dira eta ondo ibiliko lirateke.



Xabier Eguren
32 urte, langilea

Beste selekzio batzuei (Irlanda, Gales...) bezala Euskadiri ere aukera eman behar zaio. Talde ona osatu daiteke.



Maria Elgero
72 urte, etxekoandra

Iloba joan da partidua ikustera... Ni ezin baina ondo iruditzen zait. Futbolista onak daude hemen.

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Jai zoriontsuak!!

Zure erosketarekin HI-FI kate baten zozketarako txartel bat ematen dizugu.

Irizar pasealekua, 2 behea ☎ 76 59 54 BERGARA



Diru banaketa


Azkenean, eguna etorri zen eta Udalak banatu zuen dirua kirol elkarte guztiok ezagutu ahal izan genuen. Bidea oso luzea izan da, baina orain, prozesu garbi baten ondoren, denok jakingo dugu diruaren banaketa nola egiten den, hemendik aurrera. Gehiengoa konforme geratu da, baina kirol talde bat, Udalak ematen duen dirutik % 50a baino gehiago hartzen duena, ez dago ados. Hemendik oso gauza garbia ateratzen da, talde horrek orainarte eta urte askotan zehar, zegokion baino diru gehiago jasotzen zuela.

Baina niretzat hau ez da arazo haundiena. Aurrerantzean, Udalak dirulaguntzak, puntuazio baten arabera banatuko ditu, kirol talde bakoitzak ematen dion informazioaz baliatuz. Niretzat, eta etorkizunari begira, arazo eta beldur haundiena hau da, nolakoak izango diren kirol taldeek emango dituzten informazioak. Kirol elkarten artean, borroka handiak gerta daitezke, norbaitek datu faltsuak sartzen baditu eta hori susmatzen bada. Puntuazio handi-
goa ateratzeko, datu gehiegi sartzeko obsesioa eta arriskua egon daiteke.

Hemendik aurrera badakigu zer pasatuko den, kirol talde batek, Udaletik dirulaguntza haundiagoa ateratzen badu, besteek gutxiago aterako dute. Hau legez onartua izaten bada, ondo dago. Honek esan nahi du, kirol talde horrek, lan asko egiten duela eta ondo dabilela, baina legez onartua ez bada izaten, besteen aurka fraude handia izango da.

Sistema berri honekin Udalak epaile lana beteko du eta lan hau ondo egitea da denok espero duguna.

Jose Maria de Borja



Postnaziolismoa eta beste historia batzuk

Lerro hauek idazteko orduan kinka latza sortu, zait, aspaldian ezusteko asko eman digun gizartean bizi garelako: Faxismoaren igoaldia European, zenbait alderdi klasikoren hondamendia..., gurera etorriaz, funtzionarien grebak, langabeziaren gorakada, e.a. Hauek ahaztu, eta gertakizun diren batzuk hartuko ditut mintzagai: datorren urtean izango ditugun hauteskundeak, Europa eta Euskal Komunitate Autonomoko Legebiltzarrerakoak. Gure herrian makinatxo batek uste badu instituzioek ez dutela ezertarako balio, egia da herri bat eguneroko lanean eraikitzen dela, nahiz instituzioetan, nahiz ekimen sozialaren bidez. Gehiago aldatzen du herri bat eguneroko iharduerak, hamaika eslogan ederrek baino.

1994 erabakiorra gerta daiteke etorkizuneko komunitate honen eredia finkatzerakoan. Apostu haundia egin dute alde batekoek eta, tirabirak gaintuz, alderdi bakar bat eratzera jo dute. Postnazionalismoa ere asmatu digute eta estatuari buruz egin duten teorizazioaz bat ez gatozenok atzerakoi eta basati haundi batzuk omen gara. Eurak, berriz, "askatasuna, tolerantzia, zintzotasuna eta lagunkidetasuna" dituzte bereizgarri bezala.

Noiz erakutsiko dugu geure burua abertzaletzat dugunok beste edozein bezain aurrerakoi, askatasunzale e.a. garela? 1994 urtea hil ala bizikoa izango da gure proiektuak aurrera egiteko. Badute gure politika gizonen zer pentsatu Gabon jai hauetan, abertzaleon batasuna sekula baino beharrezkoagoa baita, gizarte hau gure ikuspegi eta aportazioekin aberastu nahi badugu. Bestela gureak egin du.

Iñazio Arregi

Biltoki



SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK,
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

PHILIPS



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK,
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK, 100
HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

dekorazioa

GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK,
ALFOMBRAK, LARRUZKO SOFAK,
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK

SAN MARTIN PLAZA, 2 ☎ 76 43 51

SONY

TB, BIDEOAK, KAMARAK,
HI-FI EKIPOAK,
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

ARREGUI, E.M.



AROSZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

Mari Carmen
ARRAINDEGIA

Arrain freskoak,
izoztuak eta mariskoak

Kruz Gallastegi

☎ 76 15 90 / 76 40 73

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubieta 26, BERGARA

Aldoka
Maldoka
TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

KIZKUR



Ileapaindegia
Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32



□ **JARDUNeko Gazte Taldearen mintegia**

JARDUN Elkarteko **Gazte Taldea** hobetu eta, bide batez, taldea bera zabalteko asmoz, mintegia izan zen larunbatean Kartzela Zaharrean. Bi saio izan ziren: goizez **Iñaki Arruti** (argazkian) Lasarteko Euskara Zerbitzuaren arduradunaren eskutik eta, arratsalde, berriz, Arrasateko AEDko **Gazte Mobidie** taldeak eta **JARDUNeko Gazte Taldeak** euren arteko elkar harremanak sendotu zituzten. Gazte Taldean parte hartzeko interesa duten guztiek **JARDUNera** bertara jo edota 760819 telefonora dei dezakete.



□ **Ahozko literatura**

Udal liburutegiak gazte eta nagusientzat antolatutako ipuin kontaketa izan zen asteartean **Novedadesen**. Badirudi Gabonak irakurketarako garai egokia izaten dela eta horretarako zaletasuna piztu nahi izan du Gabonen atarian. **Intzentsu Gorria** taldeak "**Xagu hegalaria**" ipuin kontaketa eskeini zuen eta **Novedadesen** bildutakoek primeran pasa zuten efektu espezialez (musika, argiak, etab.) hornitutako ipuinarekin. Badakizue, pausu bat besterik ez dago ahozko literatura eta idatzitakoaren artean...

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak


Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70



□ **Kirol argazkiak**


Larunbatean, Kirol Argazkien III. Lehiaketako sari-ematea egin zen Kultur Etxean. Goiko argazkian, ezkerretik eskumara, argazkilari sarituak: goian Koldo Galvez (lehen saria zuribeltzean), Juan Armentia (bigarren saria zuribeltzean), Cristobal Burgos (3. saria koloretan), Andoni Larrañaga kirol zinegotzia, eta Dani Santos (herriko onena zuribeltzean eta bigarren saria koloretan). Behean, Benito Cantero (hirugarren saria zuribeltzean), Hilario Azkargorta (hirugarren saria koloretan) eta Juan Tabares (herriko onena koloretan). Argazkilariekin jarraituz, Benito Canterok Andaluziako Juntak Estatu mailan antolatutako Argazki Lehiaketan eta Iruñeako Mendiko Argazki eta Diapositiba Lehiaketan, diapositibetan, lehen saria lortu du. Azken honetan, Agustin Gurrutxaga 2. izan da diapositibetan eta lehena argazkien kategorian.



Argazkian, Juan Armentiaren "Paraolimpic III", bigarren saria zuribeltzean.


**Zertan
dibardute
ba?**

ALBERDI/ ALVAREZ



Jon Alberdi eta Jon Alvarez 13 urteko gaztetxoek 2. saria lortu dute AED Elkarteak antolatutako Komiki Lehiaketan, "Akerraren adarrak" lanari esker. 20.000 pezetako saria eskuratu dute.

ARIZNOA



Eva Arevalillo eta Alicia De Cesarrek entrenatzen duten Ariznoa Gimnasia Erritmikoko taldea 20. postuan sailkatu zen joan den astebukaeran Gijonen jokaturako Espainiako Txapelketan.

SANTOS IRRATI-TB

Zuek®

**ELEKTRO TRESNAK • TB • BIDEOA • BIDEO KAMARAK •
MUSIKA TRESNAK • ARGIZTAPENA •**

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

Sukalde altzarien erakusketa

GABONETAN, OFERTA BIKAINAK: PEZIO INTERSGARRIAK

Umore giroan

Granuja alperra

Eibarren esaten dan granuja "aprendiz" bat zan. Itxura danez, oso alperra. Juan jako ugezaba:

- Zer? Zelan ago geldirik?
- Eztago argirik-eta.
- Eztagoala argirik? Beian biarrian dabixak barren...
- A, orduan bonbillia egongo da funditxuta.
- Juari eskillarian billa! -diñotsa ugezabak.

Alako baten badator gure granuja:

- Eztok billatzen eskillaria.
- Ik zer billau! Bueno, neu jarriko nok azpitan eta i jarri ari gaiñian bonbilla ipintzeko.

Igo da gure mutilla ugezaban sorbaldan gaiñera. Baiña an zegoan geldi.

- Ez aiz allegatzen ala? -diñotsa ugezabak.
- Bai, baiñan...
- Zer eitxen dok pa?
- Eske... zaiñ nago zeuk bueltak emoteko, olan bonbillia arixan sartu deiñ.

Pedro Zelaia

ORAIN DELA 20-25 URTEKO NOTIZIAK



Lehen bezala, gaur egun ere ohitura da Gabon egunean kantatzen irtetzea.

Gabon kanta lehiaketa

Joan zen igandean Bergarako Orfeoiaren aretoan Juventudes Parroquialesek antolatutako Gabon kanten lehiaketa izan zen. Mariaren Lagundiko flauta taldea izan zen irabazlea eta bere ondoren Gazte-Alai, Lagunak, gitarra-taldea eta Beti-Onak izan ziren.

El Diario Vasco. 1973.


**Asier Madinabeitia, Ane Goenaga eta Josune Iñarrak
hemerotekatik bildutako notiziak**

FS oto sistema *APBéniz*

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallstegi, 2 ☎ 76 00 50



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 07 78

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

BONOFOTOA



M. A. Ekorobereziabar



UNAI ETXANIZ

UNAI ETXANIZek jaso du aste honetan BONOFOTOko saria. Aurreko BONOFOTOko argazkian agertzen zen elkartearen izena **iru-bide** zen. Horixe zen erantzun zuzena eta **UNAI**k eskuratu ditu asmatzaileen artean zozketatutako **10.000** pezetak. ZORIONAK **UNAI**ri eta besteok aukera berri bat duzue aste honetako BONOFOTOarekin. Suerte!!

Zein da auzo honen izena eta zein da abenduaren 27an bertan ospatzen duten eguna?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria:
10.000 Pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

ARRASATE ERDIALDEAN, Deba Garaiko merkatal gunerik haundiena aurkituko duzu. Hemen zure erosketek izen propioa izango dute.

ibai-arte



ARRASATE ERDIALDEKO MERKATARI
ETA ZERBITZARIEN ELKARTEA

**paseatuz erostea arte bihurtu dugu
BISITA GAITZAZU!!**



**BEROGAILU,
GAS
eta
ITURGINTZA
AZTERLANAK**

**BAINU
DISEINAKETA**

ZABETX
INSTALAZIOAK

**Masterreka, 14
BERGARA
☎ 76 54 14**

Harrijasotzearen oraina eta etorkizuna lantzeko Eskola Bergaran

Harrigarria bada ere, puntako harrijasotzaile talde batek Bergaran entrenatzen du, Pedro Salegi gure herrian lan egiten duen debarraren agindutara. Salegik 56 urte ditu eta 15 urtetik harri-gintzan ari da. Orain, harrijasotzaile talde bat bildu du bere inguruan eta, astean hiru egunez, San Lorentzoko pabiloi industrial batetan entrenatzen dute Eñaut Larrañaga (18 urte, Eibar), Alberto Burunza "Plaentxi" (22, Soraluze), Ander Zenarruzabeitia "Poti" (23, Eibar), Asier Arakistain (18, Eibar), Fco. Javier Valenciano "Zelailuze" (24, Ermua), Arkaitz Garate (taldeko benjamina 12 urterekin), Jose Antonio Gisasola "Zelai" (36, Mallabia) eta Iñaki Perurenak (37, Leizta) berak ere. Bergarakorik ez dago bertan. Salegiren eritziz, "ez dago zaletasunik eta borregatik ez da irtetetzen harrijasotzailerik. Hala ere, izan dira harrijasotzaile onak: Bolintxo, Kosteï Mekolaldekoa, Iñaki Egurenak ere oso gazte utzi zuen... 19 urtekin 163 kg. altxatu zituen 10 minutuko 3 tandetan. Oso ona zen".

Eñaut Larrañagak aipatzen duenez, "bemengo



Argazkian, Salegiren agindutara entrenatzen duen harrijasotzaile taldea.

gebienok Mallabiako eskolan hasi ginen, Zelai-
ren eskolan, baina gero lanagatik hona etortzen hasi ginen eta ordutik elkarrekin entrenatzen dugu. Askoz ere bobea da zeren eta guren falluak hobetzeko ere beti da ona lagunaren eritzia jakitea". Perurenak eritzi bera dauka: "Aurten etortzen hasi naiz Bergarara eta egia da barri haundixe-
kin ibiltzerakoan hobe dela lagunartean entrenatzea, arriskua ere egon daitekeelako tartetan. Errekorrak? Orain dela bi aste huts egin nuen eta bonelako gau-


zak ere maizago gertatzen basiko dira. Edade-
ak ez du barkatzen baina ilusioa badut oraindik".

100 Kg.ko harriak

Dagoeneko hasi dira harri haundiei neurria hartzen. "100 kg.ko harriekin ibiltzen gara. Harrijasotzea ez da jendeak usten duen bezain gogorra. Hori bai, kirol barkartia da eta alde bortatik nabiko gogorra.. Entrenatzeko korrika, mendian..., bakoitzak bere metodoa du. Dena den, harriekin ibili behar da gehien eta asko zaindu.

Abalik eta gutxien irten eta jana ere kontrolatu. Profesionala izatea? Horia ezinezkoa da, baina asko gustatzen zaigu eta diru pixkat irabazteko aukera ere badago izaten diren exhibizio eta txapelketatan. Etorkizun baundia dauka kirol bonnek oraindik, jendeari ere asko gustatzen zaio-lako" dio Eñautek.

Salegiren eritziz entrenatzea da puntara iristearen sekretu bakarra. "Orain Saralegik ere marka bautsi du eta tarteka-tarteka gazteak ateratzen joango dira". Rekorren zai gaituzue.



JAUJA KIROLAK
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95



LARRUAZALAREN AZTERKETA DOAN

Zure azala aldatua baldin badaukazu; deshidratazioa, aknea, koipea, zimurak, ahuldura..., nabari badituzu eta gustora ez bazaude, etor zaitez, etor zaitez lehenbailean, zure azala **DOAN AZTERTUKO DIZUGU** zure arazoaren arrazoia ezagutzeko.

LILURA EDERTZE INSTITUTUAN itxaroten zaitugu.
Bidekurutzeta 7 zenbakia, lehen pisua. ☎ 76 31 71



Haurtxo Jesusen nobenako haurrak

Hona hemen Pragako Haurtxo Jesusen nobenako ume kantariak. Oraintxe ospatuko da aipatutako bederatziurrena. Don Pedro zena izan ohi zuten zuzendari. Erretratu orain dela 45 urte inguru aterata dago Santa Marinako atzekaldeko elizpean. Hara zeintzuk diren bertan agertzen direnak:

Aurreko ilaran: Sebal, Patxi Sabas, Jose Antonio Alberdi, Luis Mari Belastegi, Jabier Lazkano (?), Jose Ramon Lazkano, Jose Arrieta, Fernando Gardoki, Luis Larrañaga, Jose Luis Mendizabal, Odriozola, Fernando Odriozola eta ezezaguna.

Atzean: Jose Ramon Madinabeitia, Antonio Azkarate, Sabas Igartua, Odriozola, Jose Ramon Peña, Manolo Gabilondo, Ramon Juaristi, Ostolaza (?), Jose Garitano eta Basilio Gisasola.

Estepan Plazaola

Argazkia: Mariasun Gardoki

ESKUALDEKO PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Psikologia gabinetea. BERGARA



KONTSULTA, DIAGNOSTIKOA, TRATAMENDUA (Haur, gaztetxo eta helduentzako)

LOGOPEDIA-FONIATRIA

- AHOTS, HIZKETA eta LENGOAIA ZAILTASUNEN BIRGAITZEA.
- DISFONIAK. Birgaitze eta prebentzioa: noduloak, polipoak, edemak, ahotsa behartzearen ondorioak, laringea kendutakoan birgaitzea.
- DISLALIAK: ahoskatze arazoak.

• DISLEXIAK

• TOTELTASUNAK

- AFASIEN eboluzio eta tratamendua: kalte kraneoenzefalikoaren ondorioak, burmuin zainen gaitzak, encefalitiak.
- DISLALIAK: ahoskatze arazoak.

PSIKOMOTRIZITATEA

ESKOLA ATZERAPENERAKO LAGUNTZAK PSIKOLOGIA KLINIKOA

Herri Lagunak (Aranzadi Ikastolako patioetik sarrera). ☎ 76 14 80.
Koordinatzailea: Joe Luis Irazabal.

ETXEBIZITZA

Taberna salgai Uberan. Prezio interesgarria. ☎ 76 25 99.

Etxebizitza salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 40 82.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 79 83 50.

Garajea salgai Kruz Gailastegin. ☎ 76 48 36.

Pisua salgai San Lorentzon. ☎ 76 27 35.

Garajea hartuko nuke alokairuan Tokiederren. ☎ 76 52 45.

Pisu amueblatua salgai Artekale 16an. ☎ 76 12 81.

Etxea salgai Katabian. ☎ 76 56 20 (gauez).

Garajea salgai Iparragirren. ☎ 76 28 52.

Pisua alokatzen da. Bulegoak jartzeko egokia. Merkea. ☎ 76 16 89.

Bergaran pisua betetzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 55 88 / 76 56 67 (Salva).

Pisua alokatzen da. ☎ 76 18 82.

Garajea salgai Sta. Marianan. ☎ 76 43 89.

Garajea salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Etxea salgai Masterrekan. ☎ 76 48 30.

Etxebizitza salgai Antzuolako Ibarra kalean. 80 m2. ☎ 76 57 38.

DENETARIK

Omega erloju bat galdu dut. Doratua eta narruzko korreaduna. ☎ 76 27 83.

Talbot Samba (SS-S) salgai. 50.000 pta. ☎ 76 45 81.

Viallaroo PK50 motoa salgai. Berria. ☎ 76 33 86.

Collie arrazako txakurkumak salgai. ☎ 76 64 83 (Xabier).

MSX ordenadoreko lau joku salgai. Kartutxoak. ☎ 76 59 47.

Sega Megadrive salgai. 4 jokurekin. ☎ 76 25 12.

Game boy bat salgai. 10 joku. 10.000 pza. ☎ 76 51 98 (iluntzean).

Nintendo bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

Gasezko estufak erosiko nituzke. ☎ 74 08 95.

Ford Fiesta Sporta salgai. ☎ 79 76 89 (Ion).

Ebakigailu elektrikoa, pisu elektrikoa eta erakustegi frigorifikoa salgai. ☎ 76 59 28/23 65.

Renault 21 TXE bat salgai. 1988koa. ☎ 763868.

Kaminoko **"Lasa"** bizikleta salgai. ☎ 787004 (Iker).

Paseorako Peugeot **bizikleta** salgai. ☎ 76 48 68.

R-18 diesel (familiarra) eta **Ford Fiesta** salgai. ☎ 76 33 85 (iluntzean).

Kotxe zahar bat hartuko luke HIES Ekimena taldeak. ☎ 79 26 99.

Gamix kotsola (adaptadore eta jokuekin) salgai. 28.000. ☎ 765028 (Iñaki).

Peltz eskalada ekipoa salgai. ☎ 76 18 94.

LANA

Gutxitu sikiko, elbarri edota **zaharrak** zainduko nituzke. ☎ 76 53 25.

OHO eta ingeles (maila guztiak) klaseak ematen ditut. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Pertsona zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

OHO, UBI, BBB eta LH klaseak ematen ditut. ☎ 76 19 34 (Jon).

Neska gazte batek haurrak zaindu, etxeak garbitu edota gaisoak zainduko nituzke. ☎ 76 45 53

Ingelesezko klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Emakume heldu bat behar da haur atzeratu bat zaintzeko. ☎ 76 49 72.

Dibujo teknikoko klaseak ematen ditut. ☎ 765516 (Jabier).

Ingeles Filolojian lizentziatuta, klaseak emango nituzke. ☎ 76 17 36.

Latin, Euskara eta Frances **klaseak.** ☎ 76 02 99.

Hildakoak

Maria Gloria Intza Garmendia

abenduak 16, 62 urte

Andres Iturbe

abenduak 16, 80 urte

Francisco Iraegi Arana

abenduak 21, 68 urte

Jaiotakoak

Alazne Roman Lazpiur

abenduak 9

Aitor Franco Arana

abenduak 15

Marina Iturriaga Agirre

abenduak 17



GABON HAUTAN ERE...



Zure Opari Denda Bergara

Barrenkale, 27

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu, 24 behea
Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR



Sukalderako altzariak

Sukalde zoragarriak!